EHUko HIZKUNTZA OFIZIALEN ETA EZ-OFIZIALEN ERABILERA-PLANA

(2026/11/16)

Aurkibidea

1. Sarrera 3
2. Helburuak eta etorkizun-sena 6
3. EHUko harreman-sareak 9
3.1. Barne-harremanak 9
3.2. Kanpo-harremanak 11
4. Erabilera Planaren kudeaketa 13
4.1. Erabilera-planaren diseinua eta onarpena 13
4.2. Erabilera-planaren kudeaketa eta jarraipena 13
4.1.1. Euskara Batzordeak 14
4.1.2. Euskara-arduradunak 15
5. Erabilera Planaren hizkuntza-irizpideak 16
5.1. Euskara instrukzio-hizkuntza 16
5.1.1. Irakaskuntza-ikaskuntza formala 17
5.1.2. IRIentzako eta TEKAZELentzako etengabeko formazioa 18
5.1.3. Hizkuntza-harrera 19
5.2. Euskara jakintza garatzeko eta horren dibulgazioa egiteko hizkuntza modura 20
5.3. Euskara zerbitzu-hizkuntza 21
5.3.1. EHUren webgunea 22
5.3.2. Errotulazioa, informazioa zabaltzeko eskuorriak eta bestelako dokumentuak, ikus-entzunezkoak eta publizitatea 22
5.3.3. Agerraldi instituzionalak, prentsa-oharrak eta sare sozialak 23
5.3.4. Arreta eta tramite administratiboak 24
5.3.5. Kanpoko enpresek EHUko kideei ematen dizkieten zerbitzuak 24
5.4. Euskara lan-hizkuntza 25
5.4.1. Mezu, ibiltorri, eta dokumentu orokorrak 25
5.4.2. Bilera formalak eta komunikazio informalak 27
5.4.3. Gailu informatikoen sistema eragilea eta aplikazio digitalak 27
6. Konpentsazio-mekanismoen erabilera 28
6.1. Dokumentu administratiboak eta bilera ofizialak 29
6.2. Testu akademikoak 29
6.3. EHUtik kanpoko kideak dituzten epaimahaiak 30
7. Testu akademikoen monitorizazioa eta terminologia-plangintza 31
8. Kexen eta iradokizunen kudeaketa 32
9. Erabilera Planaren jarraipenerako adierazleak 33

1. Sarrera

Eusko Jaurlaritzaren Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren 19/2024 dekretuak Euskal Sektore Publikoan euskararen erabilera normalizatzeko jarraibideak arautzen ditu. Dekretuaren sarreran funtsezko arau batzuk gogorarazten ditu:

> «1979ko abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoak, Euskal Herriaren Autonomia Estatutuarenak, 6. artikuluan ezartzen du **euskara dela Euskal Autonomia Erkidegoko berezko hizkuntza ofiziala**, eta **herritar guztiek euskara eta gaztelania ezagutzeko eta erabiltzeko duten eskubidea** aldarrikatzen du. Autonomia Estatutuaren artikulu berean, gainera, erakunde komunei aitortzen zaie bi hizkuntza ofizialen erabilera bermatzeko erantzukizuna, haien ofizialtasuna arautzekoa, bai eta haiek jakitea ziurtatzeko behar diren bitartekoak eta neurriak erabakitzeko gaitasuna ere [...]
>
> Euskal Autonomia Erkidegoan euskararen erabileraren normalizaziorako hirugarren oinarrizko zutabe juridikoa 1982ko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legea da, Euskararen Erabilera Normalizatzekoa [...] Legearen 6. artikuluak, hain zuzen, **herritar guztiei aitortzen die Euskal Autonomia Erkidegoaren lurraldean administrazio publikoarekiko harremanetan euskara zein gaztelania erabiltzeko eskubidea, eta beren aukerako hizkuntza ofizialean hartuak izatekoa** [...]
>
> Euskadiko Toki Erakundeei buruzko 2016ko apirilaren 7ko 2/2016 Legeak 6.1 artikuluan xedatu zuen **euskara erabilera normal eta orokorreko zerbitzu-hizkuntza eta lan-hizkuntza izango dela entitateon jardueretan**, baina, edonola ere, **beti bermatu beharko dela herritarrek benetan egikaritu ahal izatea toki-entitateekin harremanak izateko orduan hizkuntza ofiziala hautatzeko duten eskubidea** eta, hortaz, toki-entitateek hizkuntza horretan artatzeko duten betebeharra, hartarako behar diren neurriak harturik [...]»

19/2024 Dekretuaren 5. artikuluak honela dio:[1]

> « 3.– Hizkuntza-plangintza egiteko, euskal sektore publikoko entitate bakoitzak honako hauek prestatu eta onartu beharko ditu:
>
> a) Hizkuntza Ofizialak Erabiltzeko Irizpideak.
>
> b) Plan estrategikoak.
>
> c) Kudeaketa-planak.»

[1] Ekainaren 25eko 5/2026 Legearen bidez, abenduaren 11/2022 Enplegu Publikoaren Legea aldatu da eta, hori dela eta, abian jarri da 19/2024 dekretua aldatzeko aurreproiektua. Aurreproiektu berriaren izena da "Euskal sektore publikoan hizkuntza-eskubideak bermatzeko eta euskararen erabilera normalizatzeko gobernantzari eta hizkuntza-kudeaketari buruzko dekretua". Espero izatekoa da aldaketak lotuta egotea lanpostuen hizkuntza-eskakizunekin eta derrigortasun-datekin, eta ez hizkuntza-plangintzaren oinarriekin.

EHUren kasuan, une honetan indarrean dagoen **plan estrategikoa** da "Euskal Herriko Unibertsitateko Euskararen IV: Plan Gidaria (2023-2027)" (Gobernu Kontseiluak 2024ko ekainean onartua)[2]. EHUren IV. Euskara Plan Gidariaren Kudeaketa Plana ere martxan da. Azpimarratu behar da EHUko plan estrategikoaren aplikazio-epea lerratuta dagoela Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak Euskal Sektore Publikoan euskararen erabilera normalizatzeko eta hizkuntza ofizialen kudeaketa bideratzeko abian duen VII. Plangintzaldiarekin (2023-2027).

Dekretuan erakunde publikoei eskatzen zaien hirugarren plana da Hizkuntza Ofizialak Erabiltzeko Irizpideak. EHUk 2012an argitaratu zuen "UPV/EHUren harreman ofizialetan hizkuntzen erabilerarako jarraibide eta irizpideak" dokumentua. Azpimarratu beharrekoa da hizkuntza ofizialen erabilerarako irizpideek ez dutela aplikazio-denboraren mugarik, baina horiek kudeatzeko eta ebaluatzeko metodologia nabariki findu dituela Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak. Gainera, 2012tik hona nabariki areagotu da EHUren nazioartekotzea eta atzerriko hizkuntzen erabilera, bereziki, ingelesarena. Hortaz, beharrezkotzat jotzen dugu elementu berri horiek guztiak kontuan hartzen dituen Hizkuntza Ofizialen eta Ez-ofizialen Erabilera Plana prestatzea.

Azpimarratu beharreko beste elementu bat da EHUren Klaustroak 2026ko martxoaren 16an onartu zuela "Euskal Herriko Unibertsitatearen Estrategia Plana (2026-2028)". Plan estrategiko horren 7. ardatza da "Euskararen normalizazioa eta hizkuntza-plangintza", eta ardatz horretan zehazten dira erabilera-plan honetan garatu behar diren hainbat helburu eta ekintza.

19/2024 dekretuak erakunde publikoei eskatzen die Hizkuntza Ofizialak Erabiltzeko Irizpideak prestatzea eta onartzea eta, zeregin hori gidatzeko eta bateratzeko, "Hizkuntza Ofizialak Erabiltzeko Irizpideak: EAEko Administrazio Orokorra" dokumentua onartu zuen Eusko Jaurlaritzaren Gobernu Kontseiluak 2023ko ekainaren 6an. Dokumentu horren sarrerak honela dio: «Agiri honetan jasotakoak EAEko bi hizkuntza ofizialen erabilerarako jarraibide orokorrak dira, eta hizkuntza-irizpide batzuk finkatu nahi ditu Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean eta hari atxikitako Sektore Publikoa osatzen duten gainerako erakunde guztietarako. **Irizpide orokor horiek aipatutako erakundeen erabilera-planetan gauzatuko dira, eta, behar izanez gero, osatu eta zehaztu egingo dira**. Haien betetze-maila eta hartu beharreko neurriak planari **jarraipena** eginez aztertuko dira, baita **aldizka egingo diren ebaluazioetan** ere».

[2] Errektoretza Taldearen aldaketa dela eta, kudeaketa-planaren 2024-25 ikasturterako ekintzarik nabarmenenak Klaustroaren 2025eko martxoaren 26ko bileran aurkeztu ziren 2024-25 Ekintza Planaren barruan. 2025eko udan, eta ikasturte-aldaketari begira, IV. EPGaren helburuak erdiesteko **Kudeaketa Plan** xehea prestatu da, IV: EPGaren indarraldi osoa kontuan hartzen duena.

EHUrako erabilera-plan hau prestatzeko, kontuan hartu dira Eusko Jaurlaritzak finkatutako irizpideak baina, unibertsitate publiko honen testuingurura egokitzeko, nahitaezkotzat jotzen da hiru alorretan osatzea:

a) Unibertsitatearen testuinguruan hizkuntza ofizialak (euskara eta gaztelania) hizkuntza ez-ofizialekin batera kudeatu behar dira, bereziki, ingelesarekin. Izan ere, unibertsitatearen bereizgarrietako bat da nazioarteko elkargunea izatea eta, horrekin lotuta, askotariko hizkuntzak kudeatzeko eremu eleaniztuna izatea: hizkuntza ofizialen erabilera hizkuntza ez-ofizialen erabilerarekin lotuta dago. Hortaz, **erabilera-plan honek hizkuntza ofizialak eta ez-ofizialak hartzen ditu kontuan**.

b) Osatu beharreko bigarren alorra da planak kontuan hartu behar dituen kolektiboei dagokiena. Izan ere, 19/2024 dekretuak "Aplikazio-eremu subjektiboa" ezartzen du 2. artikuluan, eta paragrafo hau dauka unibertsitateari buruz:

> « 1. – Dekretu honen xedapenak **euskal sektore publikoaren zerbitzuko langile funtzionarioei** aplikatuko zaizkie, **bai eta haren zerbitzuko lan-kontratuko langileei ere**, hala dagokienean. [...]
>
> d) **Euskal Herriko Unibertsitatea** eta haren ente instrumentalak, **administrazioko eta zerbitzuetako langileei dagokienez bakarrik**. [...]
>
> 3. – **Unibertsitateaz kanpoko irakasleek** eta Osakidetza Euskal Osasun Zerbitzuko estatutu-peko langileek dekretu honetan xedatutakoa **bete beharko dute**, eta langile horiei lehentasunez aplikatuko zaie beren araudi espezifikoa honako gai hauei dagokienez: karrera profesionala, barne-sustapena, langileen hautaketa eta lanpostuen hornidura, ordainsari osagarrien zenbatekoa eta egitura, administrazio publikoen arteko borondatezko mugikortasuna eta zuzendaritzako langile publiko profesionalen erregulazioa. »

Dekretuak zehazten duen aplikazio-eremua EHUko TEKAZELei (Teknikariak eta Kudeaketako eta Administrazio eta Zerbitzuetako Langileak) bakarrik dagokie, baina unibertsitateko IRIak (Irakasle-Ikertzaileak) ere langile publikoak dira. Azkenik, ikasleei ere eragiten die erabilera-planak, EHUren zerbitzuak nagusiki jasotzen duen kolektiboa osatzen baitute. Hortaz, erabilera-plan honek **EHUko hiru kolektiboak hartzen ditu kontuan: TEKAZELak, IRIak eta ikasleak**.

c) Azkenik, dekretua euskararen **zerbitzu-hizkuntza** eta **lan-hizkuntza** modurako erabileraz ari da, baina EHU goi-mailako ikasketa- eta ikerketa-erakunde publikoa da. Hortaz, nahitaezkotzat jo da kontuan hartzea baita hizkuntza ofizialen eta ez-ofizialen erabilera **instrukzio-hizkuntza modura** eta **jakintza garatzeko hizkuntza modura**.

Eusko Jaurlaritzaren "Hizkuntza Ofizialak Erabiltzeko Irizpideak: EAEko Administrazio Orokorra" dokumentuak bi atal bereizten ditu erabilera-planen diseinurako: **i) Kudeaketa** eta **ii) Hizkuntzen erabilerarako irizpideak**. Erabilera-plan honetan, kontuan hartuko dira bi alderdi horiek.

2. Helburuak eta etorkizun-sena

19/2024 dekretuak hizkuntza-normalizazioaren hiru helburu nagusi zehazten ditu:

- Euskararen erabilera normala eta orokorra: EAEko berezko hizkuntza ofiziala.
- Herritarren hizkuntza-eskubideak bermatzea.
- Berezko hizkuntzaren erabileraren aldeko ekintza argiak abiaraztea, hizkuntza-aniztasuna sustatzea eta atzerapausorik ez ematea, herritarren hizkuntza-eskubideak bermatuta.

Azpimarratzekoa da baieztapen hau:

> «Euskararen erabileraren alde hartzen diren neurri bereziak – **euskaldunen eta gaztelania-hiztunen artean berdintasuna sustatzeko** eta euskaldunen egoera bereziak kontuan hartzeko egikaritzen direnak– ez dira joko gaztelaniaz aritzen direnak diskriminatzeko egintzatzat »

Dekretuak zehazten dituen helburuen artean, bigarrena herritar guztiei dagokie, eta lotuta dago bi hizkuntza ofizialetako edozein erabiltzeko eskubide orokorrarekin. Lehen eta hirugarren helburuak, aldiz, berezko hizkuntza ofizialarekin (euskararekin) lotuta daude, eta administrazioei eskatzen die euskararen normalizazioaren aldeko ekintza argiak martxan jartzea.

Bereizketa hori lotuta dago bi hizkuntza ofizialen estatus desberdinarekin. Izan ere, euskara eta gaztelania EAEko bi hizkuntza ofizialak badira ere, espainola laugarren hizkuntza da munduan hiztun kopuruari dagokionez (559,1 milioi hiztun ditu munduan), baita ofizialtasunari dagokionez ere (hizkuntza ofiziala da 22 estatutan). Euskara, aldiz, Espainiako estatuko Euskal Autonomia Erkidegoan eta Nafarroako Erkidegoko eremu batzuetan baino ez da hizkuntza ofiziala, eta eremu horietan ere hizkuntza koofiziala da gaztelaniarekin, zeina hizkuntza handia eta hegemonikoa den. Lapurdin, Behe Nafarroan eta Zuberoan, euskara ez da hizkuntza ofiziala, eta frantses hizkuntza handi eta hegemonikoarekin lehiatzen du. VII. Inkesta Soziolinguistikoaren arabera (2021), euskarak 809.341 hiztun ditu Euskal Herri osoan, eta 431.092 hiztun hartzaile.

Euskara hizkuntza txikia izateaz gain, **hizkuntza gutxitua** da bere erabilera-eremuan, gaztelania edo frantsesa baitira hizkuntza hegemonikoak eremu horretan. Izan ere, desoreka bat dago bi hizkuntza

koofizialen artean: Espainiako konstituzioak Estatuko herritar guztiei ezartzen die gaztelania jakiteko beharra eta erabiltzeko eskubidea, baina EAEko Estatutuak (1979), aldiz, erkidegoko herritar guztiei aitortzen die euskara eta gaztelania ezagutzeko eta erabiltzeko eskubidea. Hortaz, EAEko herritarrek gaztelania ezagutzeko beharra badute ere, euskara ezagutzeko eskubidea bai, baina beharra ez dute. Hartara, euskal hiztunek nahitaez izan behar dute elebidunak, nahitaez jakin behar baitute hizkuntza hegemonikoa, gizartean beren bizimodua aurrera eraman ahal izateko, baina EAEko herritarrek edozein egoeratan euskara erabiltzeko duten eskubidea mugatuta geratzen da euskal herritar askok euskaraz ez dakitelako.

Egoera horri **elebitasun hegemoniko** deritzo Moreno Cabrerak (2021)[3]: hiztun horiei elebidunak izateak (elebitasun indibiduala) ez die bermatzen hizkuntza gutxitua edozein testuingurutan erabili ahal izatea, elebitasun soziala ez baitago bermatuta. Gizarteari edo komunitateei erreparatzen diegunean, elebitasun sozialaz ari gara, alegia, komunitate batean bi hizkuntza erabiltzeari. Elebitasun indibidualak ezin du berak bakarrik eragin elebitasun soziala, baina elebitasun sozialak, aldiz, elebitasun indibidualean eragin handia duelarik, elebitasun hegemonikoak elebakartasun sozial eta indibiduala eragin ditzake (Moreno Cabrera, 2021). Gainera, egungo mundu globalizatuan, elebitasun hegemonikoa gertatzen da mundu mailan ingelesaren eta gainerako hizkuntza guztien artean. Ingelesaren hegemonia are nabarmenagoa da alor akademikoan. Moreno Cabrerak **eleaniztasun harmoniko** esaten dion egoera litzateke hiztun guztien eskubideak eta hizkuntzen arteko oreka bermatuko lukeena: hiztun guztiek izan beharko lukete eremu batean erabil daitezkeen hizkuntza guztiak ulertzeko gaitasuna, herritarrek aukeratzen duten hizkuntza erabili ahal izateko.

Komunitate edo jendarte batean elebitasun (edo eleaniztasun) hegemonikoa gertatzen denean, hizkuntza hegemonikoa(k) eta ez-hegemonikoa(k) bereizten dituzten ezaugarri batzuk zerrendatzen ditu Moreno Cabrerak:

- EbH-ak hizkuntza menderatzailearen ezagutza eta erabilera zuzenak exijitzen ditu, baina bateragarria izan daiteke hizkuntza azpiratuaren ezagutza eta erabilera mugatu eta eskasarekin.
- EbH-ak hizkuntza menderatzailearen ezagutza eta erabilera mugatua edo eskasa hutsune larritzat hartzen ditu, baina erabat onargarritzat eta arrazoizkotzat hartzen du hizkuntza azpiratuaren ezagutza eta erabilera mugatua edo eskasa.
- EbH-ak desparekotasuna eragiten du, eta hizkuntza azpiratuaren hiztunen hizkuntza-eskubideak urratzen ditu.

[3] Juan Carlos Moreno Cabrera (2021) "Políticas lingüísticas en el estado español: del bilingüismo hegemónico al plurilingüismo armónico" *Revista de Humanidades y Ciencias Sociales.* 11(2021): 21-43.

- EbH-ak berezko hizkuntzen gutxiespen-jarrera eragiten eta sustatzen du, eta horrek horien ezagutzaren eta erabileraren murrizketa eragiten du.
- EbH-ak eragin nabarmena du hizkuntza-aniztasunaren eta, beraz, gizateriaren kultur ondarearen zati handiaren suntsipenean.
- EbH-a kolonialismoaren eta inperialismo kapitalistaren eskutik lotuta doa, eta horiexek sendotzen eta sustatzen dute.
- EbH-ak kulturaren zapalkuntza-egoerak sortzen ditu eta, ondorioz, erresistentzia- erreakzioak eragin ditzake.
- EbH-aren aurreko erresistentzia mugimendu atzerakoi eta partikularistatzat hartzen du hizkuntza menderatzailearen komunitateak.

Ildo horretatik, elebitasun hegemonikotik eleaniztasun harmonikora hurbiltzen joateko etorkizun-sena duen erabilera-planean aurreikusitako ekintzek hainbat faktoreri eragin behar diete:

- Euskararen prestigioari.
- Euskararen ezagutzari.
- Euskarazko ahozko eta idatzizko ekoizpenen hizkuntza-kalitateari.
- Hizkuntza-eskubideen urraketei.
- Euskararen presentzia bermatzeari testuinguru elebidun eta eleaniztunetan.

Hortaz, 19/2024 dekretuak erakunde publikoei eskatzen dizkien berezko hizkuntzaren erabileraren aldeko ekintza argiak eta hizkuntza-aniztasunaren sustapenak lotuta daude **euskararen ezagutzarekin** eta **euskararen erabilerarekin**. Izan ere, edozein hizkuntza erabili ahal izateko, nahitaezkoa da hizkuntza hori jakitea. Hortaz, euskararen erabilera sustatzeko, nahitaezkoa da euskal hiztunen kopurua ahal den eta handiena izatea. Baina, era berean, hizkuntza esparru guztietan erabiltzea nahitaezkoa da hizkuntza garatzeko eta hizkuntzaren ezagutza handitzeko. **Hizkuntzak ahal den eta komunikazio-egoera gehienetan erabiliz ikasten dira**. Iurrebasoren eta Goikotxearen (2025)[4] hitzak erabiliz: «Erabileraren zorua jartzen du gaitasunak [...] Erabilera da ezagutzaren motorra».

Euskararen erabilera sustatzeko ekimen eta ekintzek kontuan hartu behar dute elebitasun hegemonikoak dakarrela hizkuntza hegemonikoaren gorespena eta berezko hizkuntza ez-hegemonikoaren gutxiespena, eta horrek eragiten duela komunitate elebidunean berezko hizkuntzaren erabilera gero eta mugatuagoa izatea, berezko hizkuntzaren desagerpena ere eragin dezakeena. Gainera, unibertsitatearen eremuan ezin dugu ikusmiratik galdu ingelesaren hegemonia, lan akademikoetan, argitalpen eta komunikazio zientifikoetan euskararen erabilera erabat gutxiestera

[4] Iñaki Iurrebaso eta Garikoitz Goikoetxea (2025) *Esnatu ala hil. Euskararen oraina eta geroa, diagnostiko baten argitan.* Elkar.

eramaten duena, baita, neurri txikiagoan bada ere, gaztelaniaren erabilera ere.

Hortaz, hizkuntza ofizialen eta ez-ofizialen erabilera-planak, eleaniztasuna sustatuko badu, euskaren erabileraren aldeko ekintzak definitu behar ditu, eta **ekintzok etorkizun-sen edo bisio baten argitan** lerratu behar ditu. Ikusmiran dugun etorkizun-sen horri **euskararen inguruan ardaztutako eleaniztasun harmoniko** esango diogu.

3. EHUko harreman-sareak

Hizkuntzen erabileraz aritu ahal izateko, nahitaezkoa da hiztunen arteko harreman-sareak kontuan hartzea. Batetik, EHUko kolektiboen arteko **barne-harremanak** ditugu eta, bestetik, EHUkoak ez diren herritarrekiko edota erakundeekiko **kanpo-harremanak**.

3.1. Barne-harremanak

EHUren eginkizun nagusiak dira **irakaskuntza-ikaskuntza** eta **ikerketa**. Zeregin horietan inplikatuta daude **ikasleak** eta **IRIak**. Irakaskuntza-ikaskuntza prozesuetan **euskara instrukzio-hizkuntza** modura erabiltzea funtsezkoa da euskal hiztunek beren espezialitate-alorreko euskarazko erregistro akademiko-profesionalak gara ditzaten, eta euskararen beraren erregistro akademikoen garapenerako. Egun, **euskara, gaztelania eta ingelesa** erabiltzen dira nagusiki instrukzio-hizkuntza modura. **Frantsesa** irakasgai gutxi batzuetan baino ez da erabiltzen. Alor honetan, euskara urrun dago oraindik gaztelaniarekin parekatuta egotetik[5]. Hizkuntza guztiak kontuan hartzen dituen irakaskuntza-plangintza egin behar da, hizkuntza horien presentzia harmonizatzeko, eta hizkuntzen araberako eskaintza eskariaren arabera berrantolatzeko. Izan ere, **egun mundu zabalean euskararen instrukzio-hizkuntza moduko erabilera berma dezakeen unibertsitate bakarra EHU da** eta, beraz, **nahitaezkoa da euskararen biziberritzerako**. Funtsezkoa da irakaskuntzan euskara transmisio-hizkuntza modura erabiltzea**, irakasleen eta ikasleen arteko harremanetan** ez ezik, baita ikasleen arteko eta irakasleen arteko harremanetan ere. Irakaskuntza-ikaskuntza prozesuen parte dira ikasleen arteko harremanak eta, beraz, garrantzitsua da harreman horiek instrukzio-hizkuntza erabiliz egitea.


[5] 2025-2026 ikasturtean nahitaezko irakasgai guztiak euskaraz eskaini dituzten graduak % 80,4 dira, eta nahitaezko guztiak gaztelaniaz eskaini dituztenak % 87,3. Hautazko irakasgai guztiak euskaraz eskaini dituzten graduak % 2,9 dira, eta hautazko guztiak gaztelaniak eskaini dituztenak, aldiz, % 48. Euskaraz osorik egin daitezkeen graduak % 56,9 dira, eta gaztelaniaz osorik egin daitezkeenak, aldiz, % 79,4. Eskaintza txikiagoa da euskaraz gaztelaniaz baino, baina graduen % 55,9an euskaraz gaztelaniaz baino ikasle kopuru handiagoa dago. Datu guztietan hizkuntza jakintza-arlo duten graduak, eta euskaraz ere eskaintzen diren gradu hirueledunak kendu dira. Orotara, 2025-2026 ikasturtean graduetan matrikulatuta zeuden ikasle guztietatik, % 59,2k aukeratu zuen lehenengo mailan euskaraz ikastea, baina graduko baliabideen % 45,3 bideratu zen euskarazko irakasgaietara.

IRIek beren lana aurrera eramateko erabiltzen duten hizkuntzari **lan-hizkuntza** esaten diogu. Gainera, unibertsitatean, IRIek irakaskuntza eta ikerketa ez ezik, kudeaketa ere egiten dute. Askotariko ardurak, zuzendaritzak eta koordinazio-lanak dituzten IRIak daude, eta horiek beste IRIekin eta ikasleekin erabiltzen duten hizkuntzari **zerbitzu-hizkuntza** esaten diogu. Gainera, IRIek etengabeko formazioa ere jasotzen dute EHUko beste IRI batzuek edo kanpoko formatzaileek emana. Zenbaitetan, EHUko TEKAZELek ematen duten formazioa ere jasotzen dute, adibidez, liburutegiko zenbait teknikarik eskainitakoa. Horrelakoetan ere, **instrukzio-hizkuntzaz** hitz egin dezakegu.

Bestalde, EHUko irakasleek, ikertzaileek eta ikasleek **euskara jakintza garatzeko hizkuntza modura** erabiltzea funtsezkoa da, besteak beste, **GrALak, MALak eta doktoretza-tesiak** euskaraz egitea, baita **artikulu zientifikoak** idaztea ere. Horien guztien kalitatea handitzen joateko, garrantzitsua da baita **ikerketa-taldeen barruko harremanetan euskara ahal den eta gehien erabiltzea** ere. Zeregin horiek guztiak nahitaezkoak dira euskara akademikoa garatzen jarraitzeko, eta bai IRIek eta ikasleek beren errepertorio linguistikoaren barruan euskarazko erregistro akademikoak garatzeko ere.

Jakina, Erabilera Planean funtsezkoa da **TEKAZELen kolektiboa**, baita horiek beste kolektiboekin dituzten harremanak ere. Izan ere, erakunde publikoetan euskararen erabilera normalizatzeko 19/2024 dekretuan kolektibo hori aipatzen da bereziki. **TEKAZELen eginkizun nagusia da kolektibo desberdinei zerbitzua ematea**. TEKAZELek denetariko zerbitzuak eman behar dizkiete ikasleei, IRIei eta beste TEKAZEL batzuei. Hortaz, **funtsezkoak** dira **EAEko hiritarrek administrazioarekin komunikatzen direnean bi hizkuntza ofizialetako bat hautatzeko duten eskubidea bermatzeko**. TEKAZELek gai izan behar dute zerbitzu-eskatzaileak hautatzen duen hizkuntza ulertzeko, baita hautatutako hizkuntzan erantzuteko ere: **zerbitzu-hizkuntza**. Zerbitzua bi hizkuntza ofizialetako edozeinetan eman ahal izateko, nahitaezkoa da bi hizkuntza ofizialak ezagutzea, lanpostuari dagokion mailan behintzat.

Zalantza handirik ez dago zerbitzu-hizkuntza modura erabili ahal izateko zailtasun handiak dituela oraindik euskarak, TEKAZEL guztiek ez baitakite euskaraz edota ez dutelako nahiko gaitasun edota nahiko ziurtasun zerbitzua euskaraz emateko. TEKAZELen hizkuntza-gaitasunak eta ohiturak egokitzen joateko, funtsezkoa da euskara **lan-hizkuntza** modura erabiltzea, lanerako hizkuntza-gaitasuna hizkuntza lanean erabiliz hobetzen baita. Gainera, **TEKAZELek jasotzen duten etengabeko formazioan**, euskara **instrukzio-hizkuntza** modura ahal den eta gehien erabiltzea funtsezkoa da hizkuntza-gaitasuna eta zerbitzu-hizkuntza modurako erabilera hobetzeko. Azkenik, zenbait TEKAZELek ikasleen formazioan ere hartzen dute parte, besteak beste, liburutegiko eta laborategietako zenbait teknikarik.



1. irudia: Hizkuntzen erabilerak EHUko barne-harremanetan.

3.2. Kanpo-harremanak

Kanpo-harremanak hasten dira **ikasleak EHUra erakartzeko egiten diren kanpainetan**: EHUren eskaintzaren aurkezpenak institutuetan, azokak, ate irekien egunak e.a. Horietan guztietan funtsezkoa da **euskara erabiltzea** eta **agerian uztea EHU euskararen inguruan ardaztutako eremu eleaniztuna** dela. Funtsezkoa da EHUk euskararen biziberritze eta normalizazio prozesuan duen eginkizuna balioan jartzea. **Euskara balioan jarri** behar da **EAEtik kanpoko ikasleak erakartzeko** kanpainetan ere, bereziki, Nafarroako, Iparraldeko eta diasporako ikasleak erakartzeko, baita Etxepare Euskal Institutuak euskara zabaltzeko presente dagoen denetariko unibertsitateetan ere. Kanpoko ikasleak erakartzeko **balioan jarri behar da baita EHUn gaztelaniak duen presentzia eta garapen handia**: espainola munduan zabalkunde handiena duten hizkuntzetakoa da, eta estrategia egokia izan daiteke EHUren indarguneak erabiltzea espainola lehen hizkuntza modura edo bigarren hizkuntza modura duten kanpoko ikasleak erakartzeko. Nolanahi ere, **nazioartekotzeari begira, garrantzitsua da baita ingelesa edota frantsesa** erabiltzea ere, beste mota batzuetako ikasleak erakartzeko.

Behin ikasleak erakarrita, **funtsezkoa da EHUrekin dituzten lehen harremanak**, bereziki, matrikula egiten dutenean edota lehen harrera egiten zaienean **euskaraz eskaintzea harreman horiek modu proaktiboan**, ikasleak hasieratik kontziente izan daitezen gure unibertsitatean komunikazioa euskararen inguruan ardaztuta dagoela (edo xede hori duela behintzat). **Ikasle ohiek edozein zerbitzu eskatzen dutenean** ere, garrantzitsua da euskaraz eskaintzea modu proaktiboan.

EHUk euskal gizartean jakintzaren dibulgazioa egiten duenean denetariko ekitaldien bidez (hitzaldiak, jardunaldiak, dibulgazio-artikuluak, sare sozialak e.a.) , garrantzitsua da euskararen presentzia zentrala eta ahal den eta handiena izatea.

Nazioarteko biltzar, jardunaldi eta hitzaldietan, baita **argitalpenetan** ere, desiragarria da euskararen presentzia bermatzea, adibidez, komunikazioak euskaraz aurkezteko aukera ematea edota beste hizkuntza batzuetan egiten diren argitalpenetan laburpenak euskaraz ere eskaintzea (**interpretazioa edo itzulpena tarteko**).

Doktorego-tesien epaimahaietan eta **irakasle-plazak betetzeko lehiaketen ebaluazio-batzordeetan**, EHUtik kanpoko kide ez-euskaldunak egon ohi dira. Horietan ere, **euskara erabiltzeko aukera bermatu** behar da, interpretazioa tarteko.

Kanpoko enpresak zerbitzuak emateko kontratatzen direnean, adibidez, kiroleko, aisialdiko, kulturako, formazioko edo ostalaritzako zerbitzuak emateko kontratatzen direnean, **zerbitzua euskaraz (ere) emango dutela bermatzeko**, **hizkuntza-klausula egokiak** sartu behar dira kontratuetan.

Oro har, **kanpoko gizarte-eragileekin eta erakundeekin sinatzen diren hitzarmen eta kontratuetan baita txostenetan eta bestelako dokumentuetan** ere funtsezkoa da euskararen presentzia bermatzea.



2. irudia: Hizkuntzen erabilerak kanpo-harremanetan.

4. Erabilera Planaren kudeaketa

Eusko Jaurlaritzaren "Hizkuntza Ofizialak Erabiltzeko Irizpideak: EAEko Administrazio Orokorra" dokumentuak zehazten du EAEko Sektore Publikoan herritarren hizkuntza-eskubideak zaindu eta bete daitezen hizkuntzen kudeaketa erakundeko kudeaketa-sistema orokorraren barruan txertatuta egon behar dela, alegia, hizkuntzen erabilera kudeatzea erakundeak hartutako erabaki estrategikoa dela, eta haren erronken artean dagoela euskararen erabilera sustatzea hizkuntza ofizial bien erabilera-berdintasuna lortze aldera. Dokumentu beraren arabera, euskararen erabileraren kudeaketa erakundeko esparru guztietan txertatzeko, erakunde bakoitzak erabaki behar du zein den egitura-sistemarik egokiena baina, nolanahi ere, sistema egituratu horrek honako zeregin hauek izan behar ditu:

i) Erabilera-planak diseinatzea eta onartzea.
ii) Ekintzen proposamenak lantzea.
iii) Planak kudeatzea.
iv) Emaitzen jarraipen sistematikoa egitea.
v) Helburu berriak ezartzea eta mekanismoak egokitzea.

4.1. Erabilera-planaren diseinua eta onarpena

Euskara eta Hizkuntza Plangintzarako Errektoreordetzaren ardura dira erabilera-planaren diseinua eta hori aurrera eramateko ekintzen proposamena ere. Nolanahi ere, Euskara eta Hizkuntza Plangintzarako Errektoreordetzak kontuan hartuko ditu EHUko **Euskara Batzorde** estatutarioaren aholkuak eta lankidetza. **Unibertsitatearen Klaustroa**ren eskumenen artean dago plangintza estrategikorako eta hizkuntza plangintzarako oinarriez iritzia ematea eta, beraz, Klaustroari aurkeztuko zaio erabilera-plana zalantzak eta iritziak eman ditzan. Azkenik, **Gobernu Kontseilua**ri aurkeztuko zaio, egokitzat hartzen badu, onar dezan, unibertsitatearen gobernu-organo gorena baita.


4.2. Erabilera-planaren kudeaketa eta jarraipena

Euskara eta Hizkuntza Plangintzarako Errektoreordetzaren zuzendarien eta teknikarien eginkizun izango dira erabilera-planaren kudeaketarekin eta jarraipenarekin lotutako alderdi teknikoak. Nolanahi ere, EHUren egituraren konplexutasunak eta egitura hori osatzen duten kide kopuru handiak nahitaezko egiten dute kolektibo, atal eta pertsona guztietara heltzen den sarea egituratzea. Hizkuntza-ohiturak aldatzea ez da erronka erraza eta, horretarako, **liderrak** behar dira. Gainera, jarraipen sistematikoa egiteko, **informazio-sare egonkorra** behar da, jarraipenerako adierazleen balio zehatz eta fidagarriak biltzeko. Beste hitz batzuetan esanda, erabilera-planean bildutako hizkuntza-irizpideak unibertsitateko komunitate osoan zabaltzeko, eta egunerokoan ezartzen doazela bermatzeko, sare bat

egituratu behar da ikastegi, sail eta administrazio-atal guztietan. Sarea IRI eta TEKAZEL guztienganaino heldu behar da.

Sare horren erdigunean egongo dira **Euskara eta Hizkuntza Plangintzarako Errektoreordetza** eta **EHUko Euskara Batzordea**. Horiekin koordinaturik arituko dira **ikastegietako** eta **zerbitzu zentraletako Euskara Batzordeak**. Nolanahi ere, erabilera-plana ezagutzera emateko, ezartzeko eta jarraipena egiteko, nahitaezkoa da sail eta administrazio-atalen barruan arituko diren **euskara-arduradunen sare hurbila** osatzea. Ikerketa-zentroetan ere, egoki iritziz gero, eratu ahal izango dira euskara-batzordeak eta euskara-arduradunak izendatu ahal izango dira.

Arduradunen sareak egiten duen jarraipenaren emaitzak aztertuko dituzte Euskara Batzordeek, EHU osoaren adierazleen eboluzioa zehaztasunez jarraitu ahal izateko eta, beharrezkoa izanez gero, irizpideak edota ekintzak birdefinitzeko.



3. irudia: EHUko erabilera-plana kudeatzeko eta horren jarraipena egiteko egitura.

4.1.1. Euskara Batzordeak

EHUko Euskara Batzorde estatutarioaz gain, ikastegi guztietan osatuko dira euskara-batzordeak. Atal bat baino gehiago duten ikastegietan, egoki iritziz gero, ataletako euskara batzordeak osatu ahal izango dira. Izan ere, ikastegi bakar bateko ataletan oso desberdinak izan daitezke hizkuntza-ohiturak eta erabilerak, eta komenigarria izan daiteke erabilera-planaren hurbileko kudeaketa eta jarraipena egitea.

Bestalde, Euskara Batzordeek bermatuko dute beharrezko euskara-arduradunak aukeratu eta izendatzen direla (sailetan eta administrazio-ataletan), eta erabilera-plana ulertu eta bere egiten dutela. Era berean, Euskara Batzordeak euskara-arduradunek egiten duten jarraipenari buruzko informazioa zentralizatu eta helaraziko diote Euskara eta Hizkuntza Plangintzarako Errektoreordetzari (edo berak izendatzen duen zuzendaritzari). Ikerketa-zentroetan aukerakoa izango da Euskara Batzordeak eta euskara-arduradunak izendatzea.

Euskara Batzordeen eginkizuna izango da baita adierazleen eboluzioa aztertzea eta, beharrezkoa izanez gero, neurri zuzentzaileak proposatzea.

Administrazio-atal orokorretan ere osatuko dira Euskara Batzordeak eta, hamar kide edo gehiago duten administrazio-ataletan, euskara-arduradunak izendatuko dira. Euskara Batzordea arduratuko da administrazio-ataletan euskara-arduradunak aukeratzen direla bermatzeaz, administrazio-ataletako euskara-arduradunek erabilera-plana ulertu eta bere egiten dutela ziurtatzeaz, eta horiek egiten duten jarraipenari buruzko informazioa zentralizatu eta Euskara eta Hizkuntza Plangintzarako Errektoreordetzari (edo berak izendatzen duen zuzendaritzari) helarazteaz.

4.1.2. Euskara-arduradunak

Euskara eta Hizkuntza Plangintzarako Errektoreordetzaren eginkizuna izango da Erabilera Planaren oinarriak, helburuak eta zereginak egokiro azaltzea unibertsitatearen komunitateari, bereziki ikastegietako eta zerbitzu zentraletako Euskara Batzordeei eta euskara-arduradunei. Horretarako, berariazko formazioa eskainiko die.

Sailetako (eta ikerketa-zentroetako) euskara-arduradunak bestelako koordinatzaileak edota arduradunak bezala aukeratuko dira: zuzendaritza-taldeak ardura horretarako prestutasuna duten kideak bilatu eta proposatuko dizkio Sailetako Kontseiluari (edo Ikerketa Zentroko kontseiluari), aukeratu ditzan. TEKAZELen kolektiboko euskara-arduradunak izateko prestutasuna duten langileek beren burua eskainiko dute zeregin horretarako, eta dagokien Euskara Batzordeak aukeratuko ditu. Euskara Batzordeek euskara-arduradunen zerrendak helaraziko dizkiote Euskara eta Hizkuntza Plangintzarako Errektoreordetzari.

Sailetako (edo ikerketa-zentroetako) euskara-arduradunak IRIen kolektibokoak direnez gero, haien zereginak aitortu egingo dira JARDUNen edo antzeko sistema batean. TEKAZELen kolektiboko euskara-arduradunen zereginak lan-monografian zehaztuko dira eta kontuan hartuko dira lanpostuaren mailan, hizkuntza-eskakizunean eta derrigortasun-datan.

IRIen eta TEKAZELen euskara-arduradunen zereginak hauek izango dira:

- Erabilera Planaren oinarriak, helburuak eta zereginak ondo ulertzea eta bere egitea.
- Erabilera Planaren hizkuntza-irizpideak zabaltzea beren ardurapeko zentro, talde, sail edo administrazio-atalen barruan, eta eguneroko zereginekiko lotura xehea egitea.
- Erabilera Planaren betetze-mailaren jarraipena egitea Erabilera Planean zehaztutako adierazleak erabiliz, eta datuak zentralizatzeko Euskara Batzordeari helaraztea, urteroko jarraipen eta ebaluazioa egin ahal izateko.
- Urteroko ebaluazioaren ondoren proposatzen diren neurri zuzentzaileak helaraztea beren ardurapeko sail edo administrazio-ataletara, eta horien eragina ebaluatzeko datuak biltzea.
- Sailean edo administrazio-atalean erabiltzen eta ekoizten diren dokumentuak euskaraz (ere) badaudela egiaztatzea, eta dokumentu horien hizkuntza-kalitatea zaintzea: zuzentasuna, terminologia, fraseologia, estilo akademiko/administratiboa e.a..
- Erabilera-plana ezartzeko beharrezkotzat jotzen dituen baliabide bereziak eskatzea, egokiro justifikatuta.
- Euskara-gaitasuna lanpostuan egiaztatu nahi duten lankideen berri ematea Euskara eta Hizkuntza Plangintzarako Errektoreordetzari, eta horretarako baldintzak betetzen dituztela bermatzea.

5. Erabilera Planaren hizkuntza-irizpideak

Erabilera-planaren nahitaezko bigarren osagaia dira **hizkuntza-irizpideak**, komunitateko kideei hizkuntza-eskubideak errespetatzeko eta normalizatu nahi den euskararen erabilera sustatzeko ildo argiak markatu nahi dituztenak. Plan honetan, hizkuntza-irizpideak bi kategoriatan banatu dira. Batetik, unibertsitateko kideen hizkuntza-eskubideak bermatzeko helburua duten **jarraibide orokorrak** zerrendatu dira eta, bestetik, euskararen erabilera normala eta orokorra posible egiten lagundu nahi duten **praktika onak**. Irizpideok plan honetan identifikatu diren **hizkuntzaren erabileraren lau esparruen arabera** antolatu dira: instrukzio-hizkuntza, jakintza garatzeko hizkuntza, lan-hizkuntza eta zerbitzu-hizkuntza. Plana onartzen denean, **hizkuntza-irizpideak komunitate osoari iristeko egokiak diren formatuetara egokituko dira**: eskuorriak, kartelak, bideo laburrak e.a.

5.1. Euskara instrukzio-hizkuntza

EHUk erantzukizun handia du euskal herritarrei aitortzen zaien euskara jakiteko eskubidea egikaritu ahal izateko. Unibertsitatean euskara instrukzio-hizkuntza modura erabiltzea nahitaezkoa da **euskal hiztunek**

komunikazio-alor guztietan euskaraz ahoz eta idatziz komunikatzeko hizkuntza-gaitasun gorenak garatzeko. Nahitaezkoa da baita euskara alor espezializatuetan erabili ahal izateko **hizkuntza-baliabideak garatzeko**: **lexiko eta fraseologia akademikoak eta espezializatuak**. Izan ere, edozein hizkuntzak komunikazio-alor batean aritzeko hizkuntza-baliabideak gara ditzan nahitaezkoa da hizkuntza hori komunikazio-alor horretan erabiltzea. **Espezialitate-alorrez alorretako adituak dira hizkuntza alor horietan garatzeko behar den ezagutza semantiko-pragmatikoa duten hiztun bakarrak**, haien espezialitate-alorreko kontzeptuen eta komunikatzeko erabiltzen diren testu-generoen ezagutza eta kontrola baitute.

Hiru maila bereiziko ditugu atal honetan: **irakaskuntza-ikaskuntza formala**, IRIen eta TEKAZELen **etengabeko formazioa**, eta kanpotik datozen ikasle eta ikertzaileei, baita euskaraz ez dakiten bertako ikasle eta IRIei zuzendutako **hizkuntza-harrera**.

5.1.1. Irakaskuntza-ikaskuntza formala

- EHUk ahalegin handia egingo du eskaintzen dituen graduetan eta graduondokoetan euskarak ahal den eta presentzia handiena izan dezan: nahitaezko eta hautazko irakasgaiak, GrALak, MALak eta doktorego-tesiak.
- EHUk euskara akademikoa berariaz lantzeko eta ikasleen kontzientzia linguistiko eta soziolinguistikoa garatzen laguntzeko irakasgaiak (EPGko irakasgai esaten zaienak) eskainiko ditu gradu guztietan, eta berariaz egokituko ditu jakintza-alorren eta graduen komunikazio-behar espezifikoetara.
- EHUk euskara akademikoa berariaz lantzeko eta kontzientzia linguistiko eta soziolinguistikoa garatzen laguntzeko berariazko formazioa eskainiko die masterretako ikasleei eta doktoregaiei.
- EHUk euskarazko irakaskuntza-materialen hizkuntza-kalitatea zaintzeko programak jarriko ditu abian, sailetako euskara-arduradunen laguntzarekin.
- EHUk hizkuntza-zalantzak kontsultatzeko EHULKU sarea eskainiko die IRIei eta doktoregaiei.
- EHUk terminologia-plangintza sendoa egingo du, irakasgaietan eta lan akademikoetan erabiltzen den terminologia eta fraseologia deskribatzeko, harmonizatzeko eta komunitate osoarentzat kontsultagai jartzeko.
- Ikasleen formazioan parte hartzen duten TEKAZELek, besteak beste, liburutegiko eta laborategietako teknikariek, formazio hori euskaraz emateko gaitasuna izango dute, eta euskaraz ere emango dute.

PRAKTIKA ONAK:

- Garrantzitsua da beren hizkuntza-profilean euskara duten IRIek beren irakaskuntzaren zati bat behintzat euskaraz ematea, testuinguru akademikoan euskaraz komunikatzeko gaitasuna mantentzen (edo hobetzen) dutela bermatzeko.
- Graduetan edo masterretan euskara instrukzio-hizkuntza modura ezarrita duten irakasgaietan, irakasleen betebeharra da irakasgaian erabiltzen diren idatzizko eta ahozko oinarrizko materialak (ikasle-gida, klaseko aurkezpenak, apunteak, praktika-protokoloak e.a.) euskaraz eskaintzea.
- Funtsezkoa da ikasleei euskaraz eskaintzen zaien idatzizko eta ahozko inputa zuzena eta komunikazio akademikorako egokia dela zaintzea.
- Euskarazko irakasgaietan, ikasleen arteko idatzizko eta ahozko komunikazioan euskararen erabilera sustatuko da, baita ikasleen eta irakasleen arteko komunikazioan ere, adibidez, tutoretzetan.
- Funtsezkoa da irakasgaian erabiltzen den euskarazko terminologia eta fraseologia egokiro lantzea eta zaintzea, EHUren terminologia-plangintzarekin lerrokatuz.
- Garrantzitsua da hizkuntza-baliabide akademikoen hizkuntza desberdinen baliokideak eskaintzea ikasleei, eleaniztasun harmonikoa jomugan, adibidez, irakasgaiko termino-zerrenda eleaniztunak (euskara, gaztelania, ingelesa, frantsesa).
- "Euskara lagun irakasgaiak" (ELI) eskaintzea garrantzitsua da unibertsitateko komunitatea trinkotzeko: instrukzio-hizkuntza modura gaztelania edo ingelesa erabiltzen duten irakasgaietan euskarazko materialak ere eskaintzea ikasleei, eleaniztasun harmonikoa jomugan.
- Euskara edo gaztelania instrukzio-hizkuntza modura ezarrita duten irakasgaietan, euskarazko edo gaztelaniazko materialak ez ezik, ingelesezko edota frantsesezko materialak ere eskaintzea aberasgarria izan daiteke ikasleentzat, eleaniztasun harmonikoa jomugan: English Friendly Courses (EFC+), Cours avec Soutien en Français (CSF+).

5.1.2. IRIentzako eta TEKAZELentzako etengabeko formazioa

IRIei eta TEKAZELei askotariko gaien inguruko etengabeko formazioa eskaintzen zaie. Batzuetan EHUren barruko kideak arduratzen dira formazio horretaz eta, beste batzuetan, aldiz, kanpoko adituak edo formatzaileak. Funtsezkoa da etengabeko formazioan euskara ahal den eta gehien erabiltzea instrukzio-hizkuntza modura. Izan ere, oso garrantzitsua da IRIen eta TEKAZELen euskara-gaitasuna lantzen jarraitzeko, eta euskara lan-

hizkuntza modura erabil dezaten sustatzeko. Gainera, funtsezkoa da etengabeko formaziorako materialak euskaraz eskaintzea, euskararen hizkuntza-baliabideak sortzeko eta partekatzeko formazioan lantzen diren gai espezializatuen alorretan. Gainera, beharrezkoa da oraindik ere euskara akademikoa lantzeko berariazko formazioa eskaintzea IRIei. Garrantzitsua da baita TEKAZELei euskara lantzeko hobekuntza-ikastaroak eskaintzea.

- Euskara eta Hizkuntza Plangintzarako Errektoreordetzaren eginkizuna da **IRIei euskara akademikoa lantzeko formazioa** eskaintzea, baita **TEKAZELentzako hizkuntza-hobekuntzarako ikastaroen eskaintza** antolatzea ere.
- EHUren SAE/HELAZen eta TEKAZELen formazio-atalaren ardura da **formazioaren eskaintza bi hizkuntza ofizialetan antolatzea**, eta **hizkuntzen araberako eskaintza euskal hiztunen kopuruarekiko proportzionala** izatea. Une honetan, gutxi gorabehera, TEKAZELen % 83,6 dira hizkuntza-eskakizuna egiaztatuta dutenak eta IRIen % 73 beren hizkuntza-profilean euskara dutenak.

PRAKTIKA ONAK:

  - Estrategiak eta jarraibideak landuko dira euskarazko hizkuntza-eskakizuna duten TEKAZELek eta euskaraz irakasteko gaitasuna duten IRIek etengabeko formazioan euskarazko eskaintza izan dezaten eta formazioa hizkuntza horretan egin dezaten.
  - EHUk ahalegina egingo du IRIentzako hizkuntza-prestakuntzarako programak SAE/HELAZek diseinatutako Irakasleen Garapen Akademikorako marko orokorrarekin lerratzeko eta uztartzeko.

5.1.3. Hizkuntza-harrera

Bigarren atalean ikusi dugu eleaniztasun harmonikora hurbiltzen joateko nahitaezkoa dela komunitateko kide guztiek unibertsitatean erabiltzen diren hizkuntzak ulertzeko gaitasuna behintzat izatea. Hori dela eta, garrantzitsua da **kanpotik datozen ikasle, doktoregai eta ikertzaileei** gure unibertsitatean eta gure gizartean **euskarak duen garrantziaren berri** ematea, eta **euskara eroso ikasteko aukerak** eskaintzea. Aukera horiek balia ditzakete baita EAEkoak diren baina edozein arrazoirengatik euskara ikasteko aukerarik izan ez dutenek.

PRAKTIKA ONAK:

  - EHUk euskarak unibertsitatean eta gizartean duen garrantziari eta baliagarritasunari buruzko kanpainak egingo ditu kanpotik datozen ikasle, doktoregai eta ikertzaileei zuzenduta.
  - EHUk euskara ikasteko bide eroso eta egokituak eskainiko dizkie kanpotik datozen ikasle, doktoregai eta ikertzaileei.

- Euskararen ikasketa prozesuan laguntzeko, euskara eroso praktikatzeko eremuak eskainiko dira: berbalagun taldeak, mintzodromoak e.a.
- Euskara-maila lanpostuan egiten den erabilerarekin lotuta akreditatzeko bideak erraztuko ditu EHUk, EIGA proben barruan. Horrela, kanpotik datozen ikertzaileei eskaintzen zaien harreraren azken urratsa izango da EHUn irakasteko gaitasun-agiria bertan eskuratu ahal izatea.

5.2. Euskara jakintza garatzeko eta horren dibulgazioa egiteko hizkuntza modura

EHUko irakasleek, ikertzaileek eta ikasleek **euskara jakintza garatzeko hizkuntza modura erabiltzea funtsezkoa** da euskarak alor espezializatuetan erabili ahal izateko **hizkuntza-baliabideak gara ditzan** eta adituak edota aditu izateko ikasten ari direnak **euskara komunikazio-egoera espezializatuetan erabiltzeko gai izan daitezen**. **Euskararen prestigioa handitzeko** ere garrantzitsua da eguneroko komunikaziorako ez ezik, komunikazio espezializaturako ere balio duela erakustea. Gainera, hizkuntzek munduari begiratzeko modu desberdinak dituztelarik, jakintzara hizkuntza desberdinetatik hurbiltzeak aberastu egiten du jakintza bera ere.

- EHUk, Argitalpen Zerbitzuaren bidez, IRIei aukera eskainiko die liburuak eta artikuluak euskaraz argitaratzeko. Areago, euskarazko argitalpenak sustatuko ditu, eta balioan jarriko ditu ohiko ebaluazio- eta aitorpen-sistemetan: JARDUN, Docentiaz, lan-poltsak, irakasle-plazak etab.
- EHUk ahalegina egingo du euskarazko argitalpenak nazioarteko adierazle-sistemetan txertatzeko, eta EHUtik kanpoko ebaluazio-sistemetan kontuan har daitezen.
- EHUko Argitalpen Zerbitzuak euskara ez beste hizkuntzetan argitaratzen dituen aldizkarietan euskarazko laburpena ere txertatuko dela bermatuko du.
- EHUk lan akademikoak (GrALak, MALak eta doktorego-tesiak) euskaraz egin daitezen sustatuko du, eta horien balioa aitortuko die egileei haien espedientean, tituluan, eta deialdietan: beketan, lan-poltsetan, irakasleen deialdietan etab. Zuzendariei ere aitortuko zaie euskarazko lan akademikoak zuzentzea, Docentiaz programan, JARDUNen e.a.
- Gizartean jakintzaren dibulgazioa egiteko antolatzen diren hitzaldi, jardunaldi, erakusketa, azoka eta bestelakoetan bi hizkuntza ofizialen presentzia bermatuko da, betiere euskararen presentzia ahal den eta handiena eta zentralena izan dadin zainduta. Ekitaldien zabalkundea bi hizkuntza ofizialetan egingo da, betiere ekitaldia zein hizkuntzatan eramango den aurrera garbi adierazita. Euskaraz egindako ekitaldiak

sustatuko dira, beharrezkotzat hartuz gero konpentsazio-mekanismoak erabiliz: aldi bereko interpretazioa, azpitituluak e.a.

PRAKTIKA ONAK:

- Euskarazko ekoizpena sustatzeko eta ekoizpen horren kalitatea bermatzeko, funtsezkoa da sail, ikerketa-talde, ikerketa-zentro eta katedretan egiten diren bileretan eta komunikazio informalagoetan euskara ahal den eta gehien erabil dadin sustatzea. Horretarako, xuxurlariak, aldibereko itzulpena edota hizkuntza-teknologien beste baliabide batzuk erabil daitezke.
- EHUko kideek nazioarteko biltzar, sinposio eta bestelako ekitaldi zientifikoen antolatzaile modura edota batzorde zientifikoetan parte hartzen dutenean, ahalegina egingo dute euskarak presentzia izan dezan, bai idatzizko dokumentuetan baita ahozko saioetan ere, adibidez, komunikazioak euskaraz egiteko aukera emanez. Euskara eta Hizkuntza Plangintzarako Errektoreordetzak euskaraz ez dakiten parte-hartzaileek saioak jarraitu ahal izateko baliabideak eskainiko ditu: aldibereko interpretazioa edota hizkuntza-teknologien beste baliabide batzuk.

5.3. Euskara zerbitzu-hizkuntza

Hiztunei bi hizkuntza ofizialak erabiltzeko aitortzen zaien eskubidea bermatzeko, beharrezkoa da hizkuntza ofizialen (euskara eta gaztelania) presentzia bermatzea EHUko euskarri guztietan: errotulazioa, webguneak, inprimakiak, formularioak, informazioa zabaltzeko eskuorriak eta bestelako dokumentuak, ikus-entzunezkoak, iragarkiak, publizitatea, prentsa-oharrak, agerraldi instituzionalak, sare sozialak e.a. Gainera, nahitaezkoa da unibertsitateko kide guztiei, baita ikaslegaiei eta ikasle ohiei ere, administrazio-atalekin aukeratzen duten hizkuntza ofizialean komunikatzeko eskubidea aitortzea eta bermatzea. EHU nazioartera zabalduta dagoen unibertsitatea izanda, kanpora begirako euskarri batzuetan beharrezkoa da hizkuntza ez-ofizialak (ingelesa edo frantsesa) ere erabiltzea. Euskarak presentzia nabarmena izan behar du euskarri horietan guztietan, euskal hiztunen hizkuntza-eskubideak bermatzeko ez ezik, euskararen prestigioa handitzeko eta guregana hurbiltzen direnek baita EHUko kide guztiek ere kontzientzia har dezaten EHUk euskararen inguruan ardaztutako eleaniztasun harmonikoa duela jomugan.

Atal honetan, azpimarratu beharrekoa da EHUk tipografia propioa duela. Tipografia hori Arte Ederren Fakultateko Letraz taldeak diseinatu zuen eta, horretarako, Chillidaren lanaren kontzeptualizazioa izan zuen oinarri. EHUSerif eta EHUSans dira oinarrizko bi letra tipoak, eta ondo ezarritako estilo-ohitura da **EHUSerif tipografia** erabiltzea **euskarazko testuetan**, eta **EHUSans tipografia** erabiltzea **gaztelaniazko testuetan**. Atzerriko hizkuntzetarako ez dago ezarrita letra tipo bat edo bestea, baina EHUSans

erabili ohi da, EHUren marka nabarmentzeko. Logoari, koloreei eta abar dagokienez, EHUren erakunde nortasun bisualaren gidaren jarraibideak hartu behar dira kontuan.

5.3.1. EHUren webgunea

EHUren **webgunearen atal nagusiak**, gure unibertsitatearen erakusleihoa diren horiek, **euskaraz, gaztelaniaz, frantsesez eta ingelesez** eskainiko dira. Izan ere, euskara eta gaztelania EAEko bi hizkuntza ofizialak dira. Frantsesa da Iparraldeko euskal hiztunen hizkuntza ofiziala, eta EHUrekin saretutako hainbat unibertsitate eta ikerketa-zentroren lehen hizkuntza. Ingelesa, aldiz, komunikazio akademikorako hizkuntza hegemonikoa da mundu mailan.

Euskararen inguruan ardaztutako eleaniztasun harmonikora hurbiltzen joateko, nahitaezkoa da **euskararen prestigioa eta erabilera handitzea**. Hori dela eta, EHUren webgunean **lehenetsitako aukera modura** eskainiko da **euskara**, eta erabiltzaileentzako ikusgai egongo da hizkuntza aldatzeko botoia. Hizkuntzen ordena goian aipatutakoa izango da: euskara, gaztelania, frantsesa, ingelesa.

Barne-erabilerarako web-orrietan, nahikoa izan daiteke bi hizkuntza ofizialak (euskara eta gaztelania) erabiltzea, baina betiere euskara lehenetsitako hizkuntza modura eskainita.

PRAKTIKA ONAK:

- Hizkuntza ofizialen presentzia bermatuta, sail, talde eta atal bakoitzak aztertuko du zein den hizkuntza ez-ofizialen zentzuzko erabilera bere web-orrian. Euskara-arduradunak horren berri jasoko du, baita erabilera horren bilakaera ere, erabilera-planaren jarraipenean kontuan hartu ahal izateko eta, beharrezkoa izanez gero, neurri zuzentzaileak hartu ahal izateko.

5.3.2. Errotulazioa, informazioa zabaltzeko eskuorriak eta bestelako dokumentuak, ikus-entzunezkoak eta publizitatea

- **EHUko paisaia osatzen duten errotuluak** euskaraz eta gaztelaniaz egongo dira ikastegi, sail, gela, administrazio-atal edota zerbitzuetan.
- **Jarraibideak emateko errotulu finkoak eta behin-behinekoak** euskaraz eta gaztelaniaz egongo dira: segurtasunerako jarraibideak, ingurumenarekin eta jasangarritasunarekin lotutakoak, ordutegiekin edo funtzionamenduarekin lotutako oharrak e.a.
- Informazioa zabaltzeko eskuorriak eta bestelako dokumentuak, ikus-entzunezkoak eta publizitatea bi hizkuntza ofizialetan egongo dira.
- **Nazioarteko ekitaldiak edo jarduerak iragartzeko edo aurrera eramateko eskuorriak, kartelak, programak, ikus-entzunezkoak** e.a. ingelesez edo atzerriko beste hizkuntza batean egotea izaten da

ohikoena. Nolanahi ere, EHUn aurrera eramaten direnean, euskararen nolabaiteko presentzia ere bermatuko da.

PRAKTIKA ONAK:

- Denetariko errotuluetan, euskarazko testua goian eta nabarmenduta eskainiko da.
- Euskarazko eta gaztelaniazko testua antzekoa denean eta inork txarto ulertzeko arriskurik ez dagoenean, euskarazko testua jarri ahal izango da bakarrik.
- Piktogramak erabiltzen direnean, ez da beharrezkoa izango testurik jartzea edo, bestela, euskarazkoa jar daiteke bakarrik, komunitatean euskararen ezagutza eta erabilera sustatzeko.
- Informazioa zabaltzeko idatzizko eta ikus-entzunezko euskarrietan, euskarazkoa eskainiko da aurretik, eta gaztelaniazkoa ondoren.
- Nazioarteko hartzaileei zuzendutako informazioa eskaintzen duten idatzizko edo ikus-entzunezko euskarrietan, gomendagarria da ingelesa edo frantsesa ez ezik euskara ere erabiltzea, gure komunitatearen berezko hizkuntzak presentzia izan dezan.

5.3.3. Agerraldi instituzionalak, prentsa-oharrak eta sare sozialak

- Agerraldi instituzionaletan bi hizkuntza ofizialak erabiliko dira, betiere euskarari protagonismoa emanez.
- Prentsa-oharrak euskaraz eta gaztelaniaz eskainiko dira, betiere euskarari protagonismoa emanez.
- Sare sozialetan euskara eta gaztelania erabiliko dira, betiere euskarari protagonismoa emanez.
- Nazioarteko audientziei zuzendutako mezuetan hizkuntza ez-ofizialak (frantsesa edo ingelesa) erabiliko dira. Nolanahi ere, gomendagarria da horietan ere euskararen nolabaiteko presentzia bermatzea, gure komunitatearen berezko hizkuntza balioan jartzeko.

PRAKTIKA ONAK:

- Komunikabideen edo itu-hartzaileen izaeragatik egokia denean, euskara erabiliko da bakarrik eta, beharrezkoa iritziz gero, azpitituluak edo aldibereko interpretazioa erabiliko da euskaraz ulertzen ez duen audientziarengana ere heltzeko.
- Nazioarteko audientziei (ere) zuzendutako mezuetan hizkuntza ez-ofizialak erabiltzen direnean, euskararen presentzia ere bermatzea komeni da azpituluen edo bestelako konpentsazio-baliabideen bidez (aldibereko interpretazioa edo itzulpen-transkripzioa).
- Nazioarteko audientziari zuzendutako zenbait mezutan ere euskara erabil daiteke, eta ulergarritasuna bermatzeko, konpentsazio-

baliabideak erabili: azpitituluak, aldibereko interpretazioa, itzulpen automatikoa e.a.

5.3.4. Arreta eta tramite administratiboak

- Arreta-guneetan (atezaintzak, idazkaritzak, administrazio-atalak e.a.**) euskaraz egitera animatzen duten errotuluak** jarriko dira, eta langile euskaldunak identifikatzeko ikurrak erabiliko dira: mahaian jartzeko euskarriak, soinean eramateko ikurrak edota langileen direktorio digitalean edo mezuen sinaduran gaineratutakoak.
- Ikasleei, IRIei eta TEKAZELei ematen zaien ahozko zein idatzizko **arreta eskatzaileak hautatutako hizkuntzan** emango da.
- Tramite administratiboak egiteko **inprimaki eta formulario guztiak** (paperezkoak zein digitalak) **euskaraz eta gaztelaniaz** eskainiko dira, eta eskatzaileei aukera emango zaie hizkuntzetako bat hautatzeko. **Erantzunak** ere **eskatzaileak hautatutako hizkuntzan** emango dira edo, bestela, ele bitan.
- Tramite administratiboak egiteko **plataformak euskaraz eta gaztelaniaz** eskainiko dira, betiere **euskara lehenetsitako hizkuntza** modura eskainita. Erabiltzaileek hizkuntza aldatzeko aukera erraz ikusteko moduan jarriko da, ordena honetan: euskara, gaztelania.

PRAKTIKA ONAK:

  - EHUko langile guztion erantzukizuna da euskararen prestigioa eta erabilera areagotzeko ekarpena egitea. Hortaz, eskatzaileei aktiboki eskainiko zaie arreta euskaraz, adibidez, agurra euskaraz eginez, eta gaztelaniara aldatuz bakarrik arreta-eskatzaileak horren nahia edo beharra adierazten duenean.
  - Langile euskaldunei zerbitzu bat idatziz eskatzen diegunean, adibidez, mezu elektronikoa idazten diegunean edo telefono-deia egiten diegunean, euskara hutsean egin dezakegu.
  - Euskalduna ez den edo euskalduna ote den ez dakigun langile bati zerbitzua eskatzen diogunean, mezu idatziak euskaraz eta gaztelaniaz idatziko ditugu. Ahozko komunikazioetan, kide guztiek ulertzen dituzten esaldiak, adibidez, agurrak, euskaraz egingo ditugu, nahiz eta komunikazioaren zatirik handiena gaztelaniaz egin.

5.3.5. Kanpoko enpresek EHUko kideei ematen dizkieten zerbitzuak

- EHUko kideei zerbitzuak emateko enpresak kontratatzen direnean (adibidez, ostalaritza-zerbitzuak, dendak, kirol-zerbitzuak, kultur zerbitzuak, formazioa edo prebentzio-zerbitzuak), **kontratuan**

hizkuntza-klausula espezifikoak txertatuko dira, zerbitzu horietan euskarak behar duen presentzia izango duela bermatzeko.

- Kontratuen lizitazioetarako **balorazio-irizpideetarako** puntuazioetan **kontuan hartuko dira hizkuntza-klausulak**.
- **Kontratuaren hizkuntza-klausulen betetze-mailaren jarraipena** egingo da, eta horren emaitza kontuan hartuko da kontratua mantentzeko edo luzatzeko orduan.
- Kanpoko enpresekin sinatzen diren **kontratu eta hitzarmenak euskaraz eta gaztelaniaz** idatzita egongo dira.

PRAKTIKA ONAK:

  - EHUko kideei zerbitzua ematen dieten enpresek erabiltzaileak euskara erabiltzera animatuko dituzte eskaintza aktiboa eginez: euskaraz egitera animatzen duten errotuluak, mahai-gaineko euskarriak, langile euskaldunak identifikatzeko soinean eramaten diren ikurrak, lehen agurra euskaraz, e.a.

5.4. Euskara lan-hizkuntza

Euskararen inguruan ardaztutako eleaniztasun harmonikorantz hurbiltzen joateko, funtsezkoa da EHUko langileok (IRIak eta TEKAZELak) **euskara lan-hizkuntza** modura erabiltzea, **komunikazio idatzietan**, **bilera formaletan** eta **harreman informaletan**. Azpimarratu beharrekoa da hizkuntzen erabilera eta hizkuntza-gaitasuna estuki lotuta daudela: **hizkuntzak lanean erabiliz hobetzen da gure lanpostuan aritzeko hizkuntza-gaitasuna**. Hortaz, IRIei eta TEKAZELei eskaintzen zaien hizkuntza-prestakuntzaren nahitaezko osagaia da prestakuntza horretan ikasitakoa egunerokoan erabiltzea. Areago, euskara lan-hizkuntza modura erabiltzeak atea zabaltzen dio IVAPek abian jarri duen akreditazio-bide berriari: "Hizkuntza-eskakizunak egiaztatzea, lanpostua euskara erabiliz". EHUk baliabideak eskainiko dizkie langileei lanean euskara erabiltzeko ziurtasuna eta ohitura har dezaten, besteak beste, trebatzaileen[6] bidez.

5.4.1. Mezu, ibiltorri, eta dokumentu orokorrak

- **EHUko komunitate osoari edo kolektibo jakin bati zuzendutako mezuak, ibiltorriak edota denetariko dokumentu orokorrak** (iragarkiak, araudiak, jarraibideak, prozedurak, txostenak...) **bi hizkuntza ofizialetan** idatziko dira.

[6] Trebatzaile esaten diegu administrazio-unitateetan langileei laguntzen dieten kanpoko teknikariei. Horien eginkizuna da unitateetako hizkuntza-ohiturak aldatzen laguntzea, langileei euskaraz aritzeko beldurra eta ziurtasun eza gainditzen eta hizkuntza-gaitasuna hobetzen lagunduz. Hobekuntza-ikastaroak baino egokiagoak izan daitezke hizkuntza-ohiturak aldatzeko, hizkuntza-gaitasunaren hobekuntza lanean bertan kokatuta egiten baita.

- **Kide euskaldunei bakarrik zuzendutako mezuak** edo **euskara sustatzea helburu** duten jarduerak iragartzekoak **euskaraz bakarrik** egon daitezke.
- **Dokumentu elebidunak** hiru modutara antola daitezke: aparteko bi dokumentutan, bi zutabeko fitxategi bakar batean edo bi hizkuntzetako testuak bata bestearen atzean dituzten dokumentuetan.
- **Bi zutabeko testuetan**, **euskarazkoa ezkerrean** jarriko da eta gaztelaniazkoa eskuinean.
- Bi hizkuntzetako testuak **bata bestearen atzean dituzten dokumentuetan**, **euskarazkoa** jarriko da **aurretik** eta gaztelaniazkoa ondoren.
- **Euskarazko eta gaztelaniazko dokumentuak aparteko fitxategietan antolatzen direnean**, bi aukera daude: fitxategi bakoitzari izena idatzita dagoen hizkuntzan jartzea edo **bi fitxategiei izena hizkuntza batean jartzea eta bukaeran EUS edo ES luzapena** gaineratzea hizkuntzak identifikatzeko. Bi fitxategiak dokumentu beraren hizkuntzen araberako bertsioak direla agerian uzteko, egokiagoa izan daiteke azken aukera.

PRAKTIKA ONAK:

- Bi hizkuntza ofizialetan idatzitako testuak bata bestearen atzean dituzten dokumentuetan, lagungarria da hasieran gaztelaniazko testua ondoren datorrela iragartzen duen mezua jartzea.
- Bi zutabeko testuetan, zabaldutako estilo-irizpidea da euskarazko testua ezkerrean eta EHUSerif letra-tipoaz idaztea eta, gaztelaniazkoa, aldiz, eskuinean eta EHUSans letra-tipoaz.
- Gaztelaniazko eta euskarazko testuak aparteko bi fitxategitan idazten direnean edota aparteko mezu elektronikoetan bidaltzen direnean, komenigarria da lehen mezuan iragartzea beste hizkuntzan idatzitako testua aparteko mezuan bidaliko dela.
- Praktika ona izan daiteke euskarazko eta gaztelaniazko **fitxategiei izena hizkuntza bakarrean jartzea** eta izen hori **dokumentua sortzeko erabili den hizkuntzan** egotea: dokumentua jatorriz euskaraz sortu bada, izena euskaraz jartzea eta, dokumentua jatorriz gaztelaniaz sortu bada, gaztelaniaz jartzea. **Bukaeran EUS edo ES** gaineratuko zaie dokumentuei.
- Hitzarmenak eta kontratuak tramitatzeko, memoria bat aurkeztu behar da, eta zenbait txosten ere egin behar dira. Dokumentu horiek lanerako barne-dokumentuak dira, eta nahikoa izan daiteke hizkuntza bakar batean (euskaraz edo gaztelaniaz) bakarrik egitea. Nolanahi ere, gomendagarria da barne-dokumentu horiek ere bi

hizkuntzetan idaztea edo, bestela, euskaraz bakarrik idaztea, euskararen lan-hizkuntza moduko erabilera ere sustatzeko.

5.4.2. Bilera formalak eta komunikazio informalak

- EHUn egiten diren **bilera formaletan** (Sailetako Kontseiluen, Fakultate Batzordeen, Kalitate Batzordeen, Graduko Batzordearen, Graduondoko Batzordearen bilera, Ikerketa Batzordearen, UIBaren, Gobernu Kontseiluaren, Klaustroaren bileretan etab.) **euskara erabiliko da nagusiki**, betiere **parte-hartzaileei gaztelaniaz aritzeko aukera ere emanez**. Bileran euskaraz ulertzen ez duten parte-hartzaileak egonez gero, interpretazio-zerbitzuak edo bestelako konpentsazio-baliabideak erabiliko dira.
- EHUn egiten diren **bileren deialdiak, aktak eta erabaki-dokumentuak euskaraz eta gaztelaniaz** idatziko dira.
- **Parte-hartzaile gutxiko bileretan edota komunikazio informalagoetan** ere **euskararen erabilera sustatuko** da, posible den neurrian, betiere euskaraz ez dakitenei bilera jarraitzeko konpentsazio-baliabideak eskainiz: xuxurlariak, aldibereko interpretazioa, transkripzioa edo itzulpena e.a.

PRAKTIKA ONAK:

  - Bilera batean euskara ulertzen ez duten parte-hartzaile bakan batzuk baino ez badaude, bilera euskaraz egitea sustatuko da, euskaraz ulertzen ez duten parte-hartzaileei bilera jarraitu ahal izateko laguntza emanez: xuxurlariak, aldibereko interpretazioa / itzulpena / transkripzioa, edo bestelako baliabide teknikoren bat.
  - Bilera batean euskaraz ulertzen duten baina hitz egiteko gaitasun nahikorik ez duten parte-hartzaileak badaude, bilera euskaraz egitea sustatuko da. Euskaraz ulertzen dutenei eskertuko zaie bilera egiteko egiten duten ekarpena, eta haien interbentzioak gaztelaniaz lasai egitera animatuko zaie.
  - Euskaraz aritzeko ziurtasunik ez duten edo autoestimu linguistiko baxua duten kideekin komunikazio informalak ditugunean, euskaraz egitera animatuko ditugu, eta egiten duten ahalegina eta duten gaitasuna balioan jarriko ditugu, beren ikasketa-prozesuan aurrera egiten laguntzeko.

5.4.3. Gailu informatikoen sistema eragilea eta aplikazio digitalak

Egun gizakiok ditugun **komunikazio-harremanen zati handia aplikazio digitalen interfazeen bidez** egiten dugu. **Hizkuntzek beren estatusa mantentzeko edo hobetzeko**, **nahitaezkoa da gailu eta aplikazio digitaletan presente egotea**. EHUn askotariko aplikazio digitalak erabiltzen ditugu TEKAZELek, IRIek eta ikasleek, kudeaketa-lanetarako (GAUR, egoitza elektronikoa, Uxxi, eSinadura, Izapide, Meta4 e.a.),

irakaskuntza-ikaskuntza prozesuetarako (eGela, eGelaPi e.a.) edota barne- eta kanpo-harremanetarako (Outlook, Teams e.a.). Funtsezkoa da aplikazio horiek guztiak euskaraz eta gaztelaniaz gutxienez eskaintzea. Euskara ahal den eta gehien erabiltzeari begira, garrantzitsua da **lehenetsitako hizkuntza modura euskara agertzea**, erabiltzaileok joera baitugu ahaleginik txikiena egiteko eta, ulermen-arazorik ez dugunean, eskaintzen zaigun lehen hizkuntzan aritzeko.

- **Aplikazio digital guztiak euskaraz eta gaztelaniaz behintzat** eskainiko ditu EHUk.
- Aplikazio digital guztietan **euskara lehenetsitako hizkuntza modura** eskainiko da, betiere euskaraz ulertzen ez duten hiztunei hizkuntza aldatzeko botoia erraz ikusteko eta erabiltzeko moduan eskainita.
- EHUko teknikariek EHUko ekipoetan **sistema eragileak edota softwareak** instalatu behar dituztenean, **euskarazkoa eskainiko diete proaktiboki erabiltzaileei**, betiere hizkuntza hautatzeko aukera ere emanez.
- **Kanpainak** egingo dira sustatzeko EHUko kolektibo gutietako kideek erabiltzen dituzten **gailu elektronikoetan** (telefonoa, tableta, ordenagailua) **sistema eragilea eta aplikazioak euskaraz** jar ditzaten.

PRAKTIKA ONAK:

  - Euskaraz matrikulatzen diren ikasleek praktiketarako edo lan egiteko erabiltzen dituzten ordenagailu-geletan, aplikazioak euskaraz eskainiko dira defektuz eta, ahal delarik, baita sistema eragilea ere. Helburua da ikasleek gailu elektronikoetan euskaraz lan egiteko ohitura har dezaten.

6. Konpentsazio-mekanismoen erabilera

Eleaniztasun harmonikoa jomugan, azken helburua da unibertsitatearen komunitateko kide guztiek jakitea edo, gutxienez, ulertzea EHUn erabiltzen diren hizkuntza guztiak. Nolanahi ere, une honetan **EHUko komunitatearen zati bat ez da gauza euskaraz ulertzeko edota euskaraz testu zuzen eta egokiak ekoizteko**. Hori dela eta, euskararen erabilera bermatzeko, **konpentsazio-mekanismoak erabili behar dira**, besteak beste, **aldibereko interpretazioa eta itzulpena**. Nolanahi ere, baliabide horiek oso garestiak dira ekonomiaren eta logistikaren ikuspuntutik eta, gainera, EHUko komunitatea eleaniztuna izatea da helburua, eta ez euskarak presentzia testimoniala baino ez izatea inork erabiliko ez dituen testuetan. Hortaz, **konpentsazio-mekanismoak zentzuz erabili behar dira**, eta **etorkizunari begira gero eta gutxiago** erabiltzea izan behar da helburua.

6.1. Dokumentu administratiboak eta bilera ofizialak

Askotariko **dokumentu administratiboak** sortzen dira EHUn, **arauz bi hizkuntza ofizialetan** egon behar direnak: araudiak, kontratuak, hitzarmenak, txostenak, bileren aktak e.a. **Askotariko bilera ofizialak** ere egiten dira: Gobernu Kontseilua, Klaustroa, Ikastegietako Batzordeen bilerak, estatutu-batzordeen bilerak e.a. Hori dela eta, EHUk badu **itzultzaile-interpreteen talde bat**, bilera ofizialetan euskara erabili ahal izateko, eta askotariko dokumentu administratiboak itzultzeko. Itzultzaile-interprete horien lanari esker, urrats handiak egin dira euskara administratiboaren normalizazioan, eta hizkuntza-kalitate handia dute testu horiek guztiek.

Nolanahi ere, gero eta kide euskaldun gehiago daude EHUko atal guztietan, eta bilera horietako asko euskaraz egiten dira. Gainera, hizkuntza-teknologiek ematen diguten laguntza gero eta handiagoa da: itzultzaile automatikoak, transkriptoreak, azpititulu automatikoak e.a. Hortaz, joera izan behar da gero eta gehiago sortzea ohiko ahozko eta idatzizko testuak bi hizkuntza ofizialetan, itzultzaileen bitartekaritzarik gabe. Itzulpen-lan horietako batzuk zuzenketa-lan bihur daitezke etorkizunean. Horrela, egun itzulpenetarako erabiltzen den ahaleginaren zati bat balia liteke IRIek edo TEKAZELek ekoizten dituzten testu akademikoen eta administratiboen berrikuspena edo zuzenketa egiteko.

6.2. Testu akademikoak

Egun eskolak ematen dituzten EHUko **IRIen % 73 baino gehiago euskaldunak** dira (hizkuntza-profil elebiduna edo hirueleduna dute), urte askotan zehar **aurrera eraman den kontratazio-politikari esker**. **Testu akademikoak testu espezializatuak** dira, eta testu horiek euskaraz (baita gaztelaniaz, ingelesez edo frantsesez) **egokiro sor ditzaketen bakarrak alorrez alorreko adituak dira**, haiek baitira haien espezialitate-alorreko kontzeptu espezializatuak menderatzen dituztenak eta haien espezialitate-alorreko testu espezializatuak ekoizteko behar den ezagutza semantiko-pragmatikoa dutenak. Itzultzaileek sortutako testu espezializatuak aparteko erregistrotzat hartzen dira corpus-hizkuntzalaritzan. **Hizkuntzalarien, lexikografoen eta terminologoen eginkizuna da adituek sortutako eta erabilitako hizkuntza-baliabideak (terminologia eta fraseologia) harmonizatzen laguntzea,** baita testu akademikoak gero eta zuzenagoak izan daitezen laguntzea ere. EHUk bermatu behar du harmonizazio-zeregin horiek betetzeko eginkizuna propio esleituta eta aitortuta duten hizkuntza-zientzien adituak badituela.

Hortaz, **testu akademikoak** (ikasketa-planak, akreditaziorako txostenak, ikasle-gidak, irakaskuntzarako materialak,...) **hizkuntza ofizialetan eta ez-ofizialetan sortzea IRIen eginkizuna** da. EHUk bermatu beharko du dokumentu akademiko horien **hizkuntza-kalitatea gero eta hobea** dela,

harmonizazio-planen eta kanpainen bidez, eta IRIen etengabeko formazioaren bidez.

Testu akademikoak itzultzeko langilerik ez du EHUk, eta horrelako lanak kanpoko enpresei esleitu behar dizkie. Horrek ahalegin ekonomiko eta logistiko handia eskatzen dio EHUri eta, gainera, ez da biderik egokiena ezta zentzuzkoena ere euskara akademikoaren normalizazioa lortzeari begira. Itzulitako edo adituek sortutako testu akademikoak zuzentzeko teknikari bakarra eta beste eginkizun askorekin hori partekatzen duten bi zuzendari baino ez dugu egun EHUn, eta lan horren zati bat zenbait irakaslek edo EHUtik kanpo kontratatutako zuzentzaileek egin behar dituzte. Testu akademikoen zuzentzaileen eginkizuna da horien hizkuntza-kalitatea zaintzea, eta Argitalpen Zerbitzuan euskaraz egiten diren argitalpenei buruzko hizkuntza-txostenak egitea. Garbi dago **zuzentzaile profileko teknikarien taldea indartu egin behar dela**, testu akademikoen kalitatean aurrera egiten jarraituko badugu.

6.3. EHUtik kanpoko kideak dituzten epaimahaiak

EHUk **doktorego-tesiak euskaraz** ekoiztea sustatzen du, euskara jakintza garatzeko hizkuntza modura erabiltzea funtsezkoa baita aditu euskaldunek beren ekarpena egin dezaten euskara bera garatzeko espezialitate-alorrez alor, baita aditu euskaldunek beren errepertorio linguistikoa erregistro akademiko-profesionalekin aberastu dezaten. Nolanahi ere, **doktorego-tesien epaimahaietan ohikoena da euskaraz ez dakiten nazioarteko kideak egotea**, are gehiago, doktoregaiak Euskarazko Doktoregoa aipamena ez ezik Nazioarteko Doktoregoa aipamena ere lortu nahi duenean**. Tesia euskaraz egitea eta euskaraz eta, beharrezkoa bada, beste hizkuntza batzuetan idaztea doktoregaiaren eginkizuna da**, betiere zuzendari(ar)en eta EHUk eskaintzen dituen hizkuntza-formaziorako eta hizkuntza-zalantzak kontsultatzeko baliabideen laguntzarekin. **Ahozko defentsa euskaraz egin ahal izateko**, aldiz, **nahitaezkoa da EHUk aldibereko interpretazio-zerbitzuak eskaintzea.**

Beste horrenbeste esan daiteke **IRIen plazak lortzeko lehiaketei dagokienez**. LOSU/USLO legeak ezartzen du irakasle-plazen lehiaketen Ebaluazio Batzordeko kide gehienak plazak eskaintzen dituen unibertsitatetik kanpokoak izan behar direla. EHUren arautegiak zehazten du profil elebidun eta eleaniztuneko plazetan izangaiek plazaren profileko hizkuntza guztietan erakutsi behar dutela hizkuntza-gaitasuna. Hortaz, **EHUk bermatu behar du Ebaluazio Batzordeetan euskaraz irakasteko gaitasuna egiaztatuta duten kideak egongo direla**. Bestalde, EHUk **interpretazio-zerbitzuak eskaini behar ditu** euskaraz ez dakiten Ebaluazio Batzordeko kideei izangaiek euskaraz egiten duten ahozko jarduna ulertzen laguntzeko. **Idatzizko dokumentazioa**, aldiz, **izangaiaren ardura da**. EHUk ez du eskainiko itzulpen-zerbitzurik idatzizko dokumentaziorako. Gainera, 6.2. atalean azaldu bezala, espezialitate-alor

bateko testuak egokiro sor ditzaketen bakarrak espezialitate-alorreko adituak dira eta, areago, irakasle-plaza batera aurkezten den **izangaiak bere espezialitate-alorreko idatzizko eta ahozko testuak plazaren profileko hizkuntza guztietan egokiro ekoizteko gai dela erakutsi behar du** plazaren lehiaketan.

7. Testu akademikoen monitorizazioa eta terminologia-plangintza

6.2. atalean azaldu bezala, espezialitate-alorrez alorreko adituak dira alor horretako idatzizko eta ahozko testuak egokiro ekoizteko gaitasuna eta erantzukizuna dutenak. Nolanahi ere **euskara alor akademikoetan normalizazio bidean dagoen hizkuntza da oraindik**, eta **sortzen doazen baliabide espezializatuak (bereziki terminologia eta fraseologia) harmonizatzen joateko laguntza behar du**. Harmonizazio-lan hori egin ahal izateko, **nahitaezkoa da adituen erabilerak monitorizatzea**, edozein interbentzio adituen benetako erabileretatik abiatuta egiteko. Monitorizazio-lan hori egiteko, **testu akademikoak biltzen dituzten corpus digitalak osatu behar** dira, eta horietan erabiltzen diren **hizkuntza-baliabideak deskribatzeko teknikak baliatu** behar dira: etiketatze linguistikoa, terminologia- eta fraseologia-erauzketa. Deskribatutako hizkuntza-baliabideak aztertu egin behar dira, harmonizazio-beharra duten elementuak identifikatzeko. Prozesu horien helburuak eta emaitzak askotarikoak dira:

- Kontsulta-baliabideak: testu-corpusak, terminologia-datubaseak, fraseologia-datubaseak e.a.
- Idazketarako laguntza-tresna erdiautomatikoak.
- Etengabeko hobekuntzarako formazio-programak eta -kanpainak.

Euskara akademikoaren deskripziorako eta harmonizaziorako programa eta emaitza batzuk abian daude duela hamarkada batzuk: Garaterm egitasmoa, TSE programa, Garaterm corpusa, TZOS terminologia-datubasea eta HARTA/TAILA testu akademikoen idazketarako laguntza. Horiek garatzen, integratzen eta aberasten jarraitu behar da, ikasleen, doktoregaien eta IRIen formazio-programak benetako erabileretan oinarritzeko, eta hizkuntza-teknologiako laguntza-tresnak eta baliabideak eskaintzeko.



4. **irudia:** Euskararen erregistro akademikoen monitorizazioa, ikerketa eta harmonizazioa aurrera eramateko EHUren tresnak eta baliabideak.

8. Kexen eta iradokizunen kudeaketa

Egun, EHUn hainbat bide daude hizkuntzen erabilerari buruzko kexak edo iradokizunak Euskara eta Hizkuntza Plangintzarako Errektoreordetzari jakinarazteko: Egoitza Elektronikoa, Errektoreordetzaren webgunean dagoen "Iradokizunak eta eskaerak" atala, edota euskara.eo@ehu.eus helbidera idatziz. Nolanahi ere, **hizkuntza-kexak eta iradokizunak bestelakoekin batera kudeatzea da egokiena**, azken batean unibertsitateko kideen eskubideekin, identitatearekin eta bizikidetzarekin estuki lotutakoak izan ohi baitira. Hortaz, laster abian jarriko den **idatziak helarazteko leihatila bakarraren bidez tramitatuko dira** horrelako eskaerak, iradokizunak, kexak eta salaketak. Hartara, beste izaera batekoetan bezala, eskaera, iradokizuna, kexa edo salaketa bidaltzen duenak aukera izango du bere burua identifikatu eta erregistroaren bidez bideratzeko edo anonimotasuna gordeta bideratzeko, kexa hori agertzeak bere burua estigmatizatu edo kaltetu dezakeela uste badu. **Leihatila Bakarra erabiltzeak posible egingo du baita kexa eta iradokizunen jarraipen, sailkapen eta kuantifikazioa egitea**, bestelako izaerakoen parametro berberak erabiliz, **unibertsitatearen etengabeko hobekuntzari begira**.

Kexak **EHUko kideek helarazten dituzte batzuetan** eta, **beste batzuetan, EHUtik kanpokoek**. Hizkuntza-eskubideen urraketekin lotuta egon ohi dira batzuetan eta, beste batzuetan, testuen hizkuntza-kalitatearekin edota detektatutako hizkuntza-akats puntualen batekin.

Euskara eta Hizkuntza Plangintzarako Errektoreordetzak kexak eta iradokizunak aztertu, eta konponbidean jartzeko urratsak egiten ditu.

Kexak eta iradokizunak eskertu egiten dira beti. Izan ere, **guztion artean zaindu behar ditugu hizkuntza-eskubideak, eta euskararen prestigioa eta erabilera**. Nolanahi ere, ohartu gara zenbaitetan kexetan gutxiespen edo mespretxuko adierazpideak erabiltzen direla. Erabilera Plan honen gomendioa da horrelako adierazpiderik ez erabiltzea. Izan ere, euskara normalizazio bidean dagoen hizkuntza gutxitua da, eta zenbait erabilera oker eta desegoki zabalduta daude komunitate osoan. **Erabilera Planaren helburua da horrelako urraketak eta erabilera desegokiak murrizten joatea**.

Hori guztia kontuan hartuta, EHUko hizkuntzen erabilerekin lotutako kexen eta iradokizunen kudeaketarako zenbait jarraibide proposatuko ditugu:

- Hizkuntza-eskubideak urratzen dituen egoera edo joakera bat detektatzen duenak **kexa edo iradokizun bat** bidali ahal izango du, **ahal delarik, Leihatila Bakarra erabiliz**.
- Kexa edo iradokizuna **hurbilagoko maila batean** (saileko, ikastegiko edo administrazio-ataleko euskara-arduraduna) **konpontzerik badago, bide hori erabiltzea egokiagoa izan daiteke** gorago jo gabe. **Hurbileko mailan konponbiderik aurkitzen ez bada, orduan izan daiteke egokia Leihatila Bakarrera jotzea**.
- **Hizkuntza-akats puntualak edo orokorragoak detektatuz gero, akatsa jakinaraz dakioke testuaren ardura duenari edota euskara-arduradunari**. Hurbileko maila horretan **konponbiderik aurkitzen ez bada**, orduan leihatila bakarrera jo daiteke, kexa edo iradokizuna Euskara eta Hizkuntza Plangintzarako Errektoreordetzara helarazteko.
- Kexak eta iradokizunak egiteko orduan, **gomendatzen da ez erabiltzea gutxiespena edo mespretxua islatzen duen adierazpiderik**, are gutxiago, irainik. **Helburua da unibertsitateko komunitatea trinkotzea eta ez batzuen eta besteen artean arrakalak sortzen joatea**.

9. Erabilera Planaren jarraipenerako adierazleak

Eusko Jaurlaritzaren "Hizkuntza Ofizialak Erabiltzeko Irizpideak: EAEko Administrazio Orokorra" dokumentuan euskararen kudeaketa orokorraren atalean zehazten da **beharrezkoa dela erakundeen proiektu estatistikoetan euskara aldagaia sartzea diseinu-fasetik hasita**. Alor horretan, ahalegin handia egin behar du EHUk. Izan ere, zail samarra izaten da hizkuntza-plangintza egiteko funtsezkoak diren zenbait datu lortzea. Adibidez, EHUren aplikazioetan jasota dago

IRIen hizkuntza-profila eta, beraz, euskaraz irakasteko gaitasuna duten IRIen kopurua jakin daiteke (% 73), baina IV. Euskara Plan Gidarian zehazten den bezala, ezin da jakin euskaraz irakasteko gaitasuna akreditatuta ez duten IRIen artean zenbatekoa den euskararen ezagutza, adierazleen artean datu hori azaltzen bada ere. Era berean, erraz jakin daiteke zenbat ikaslek hautatzen duten euskaraz ikastea lehen ikasmailan (% 59,2), baina ezin da jakin zenbat euskaldun dauden beste hizkuntzetan ikastea hautatzen duten ikasleen artean. Bestalde, GrALak, MALak eta doktorego-tesiak euskaraz egitea sustatuko dela adierazten dute hainbat dokumentuk, baina, euskarazko tesiak neurtzen badira ere, ez da neurtzen urtez urte euskaraz egiten diren GrALen eta MALen ehunekoa. **Funtsezkoa da datu horiek aplikazio informatikoetan integratzea, euskara-arduradunek ere urtez urte datu horiek biltzeko eginkizun garrantzitsua izango badute ere**.

Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak ezarrita dauka metodologia bat administrazio publikoetan euskararen erabilera neurtzeko: KEMEN. KEMEN metodologiak erabilera-planen kudeaketa, euskararen zerbitzu-hizkuntza modurako erabilera eta lan-hizkuntza modurako erabilera neurtzen ditu. Metodologia horretan, galdetegi bat pasatzen zaie erakundearen langileei, eta beste bat zuzendaritza-taldeari. Bi iturri horietako datuak gurutzatu, eta finkatutako adierazleen balioak lortzen dira horrela. EHUn 2025. Urteko ekinean egin zen neurketa KEMEN metodologia erabiliz, baina metodologiak zehaztu bezala, TEKAZElei bakarrik bidali zitzaien galdetegia. IRIak ere langile publikoak direlarik, uste dugu garrantzitsua dela IRIen datuak ere jasotzea eta KEMEN metodologian integratzea.

Erabilera-planean zehaztu ditugun jarraibideak eta praktika onak kontuan hartuta, zenbait adierazle definitu ditugu erabilera-planaren eraginaren jarraipena egiteko. Hasierako taldeetako adierazleak **Eusko Jaurlaritzaren KEMEN metodologian erabiltzen direnak** dira. Sepia koloreaz nabarmendu ditugu, eta KEMEN marka gaineratu. Gainerako adierazleak **EHU bestelako erakunde publikoetatik bereizten duten adierazleak** dira. Orain arte neurtu diren adierazleetan lortutako azken balioa zehaztuko dugu eskuineko zutabean, hurrengo datu-bilketa egiten denean alderatzeko balioa izateko.

1	**KUDEAKETA (KEMEN)**	**% 47,48**
1.0.1	**1.1 EUSKARAREN KUDEAKETA OROKORRA (KEMEN)**	**% 50,00**
1.0.1.1	Erakundeak plan estrategiko eta kudeaketa-planak kudeatzeko sistema egituratua osatu du.	% 50,00
1.0.1.2	Plan estrategiko, kudeaketa-plan eta hizkuntza-irizpideen jarraipen sistematikoa egiten da.	% 50,00
1.0.1.3	Erakundeak neurriak hartzen ditu euskararen indarberritzean positiboki eragiteko, bere lan-jardun eta politika publiko guztien diseinuan, garapenean eta jarraipenean. (INPAKTUA EUSKARAREN INDARBERRITZEAN).	% 75,00
1.0.2	**1.2 LIDERGOA (KEMEN)**	**% 68,88**
1.0.2.4	Arduradun politiko eta teknikoek parte hartzen dute plan estrategiko eta kudeaketa-planen diseinuan, garapenean eta jarraipenean.	% 82,50
1.0.2.5	Arduradun politiko eta teknikoek jarrera proaktiboa erakusten dute, plan estrategiko eta kudeaketa-planetan finkatutako helburuak bete daitezen.	% 50,00

1.0.2.6	Izendatutako arduradunek dagozkien adierazleen datuak biltzen dituzte, plan estrategiko eta kudeaketa-planetan zehaztutako moduan.	% 75,00
1.0.3	**1.3 LANGILEAK (KEMEN)**	**% 61,33**
1.0.3.7	Langileei ematen zaie informazioa erakundeko plan estrategiko, kudeaketa-planei eta hizkuntza-irizpideei buruz, eta argi dute beren jardunean zeintzuk bete behar dituzten.	% 43,40
1.0.3.8	Langileek dagozkien hizkuntza-irizpideak betetzen dituzte.	% 78,40
1.0.3.9	Langileek betetzen dituzte kudeaketa-planean adostutako eginkizunak.	% 69,90
1.0.3.10	Langileek parte hartzen dute kudeaketa-planean zehaztutako sustapen-ekintzetan.	% 29,70
1.0.3.11	Langileek iritzi positiboa dute euskararen erabilerak erakundean duen bilakaeraz.	% 53,10
1.0.4	**1.4 HIZKUNTZA-GAITASUNA (KEMEN)**	**% 77,43**
1.0.4.12	Langileak gai dira lanpostuaren funtzioak euskaraz ahoz betetzeko.	% 65,90
1.0.4.13	Langileak gai dira lanpostuaren funtzioak euskaraz idatziz betetzeko.	% 66,40
1.0.4.14	Arduradun politikoak gai dira postuaren funtzioak euskaraz betetzeko.	% 100,00
1.0.5	**1.5 EUSKARAREN ERABILERA SUSTATZEKO ESTRATEGIAREN KOMUNIKAZIOA (KEMEN)**	**% 44,95**
1.0.5.15	Erakundeak euskararen erabilera sustatzeko duen estrategia komunikatzen die herritar eta gainerako interes-taldeei.	% 25,00
1.0.5.16	Erakundeak beste esperientzia batzuk ezagutzeko eta partekatzeko ekimenetan parte hartzen du	% 91,50
1.0.6	**1.6 HIZKUNTZA-KLAUSULAK (KEMEN)**	**% 6,25**
1.0.6.17	Kontratuetan hizkuntza-klausulak txertatzen dira.	% 25,00
1.0.6.18	Dirulaguntza eta hitzarmenetan hizkuntza-klausulak txertatzen dira.	% 25,00
1.0.6.19	Jarraipen sistematikoa egiten zaio kontratuetako hizkuntza-klausulen betetze-mailari.	% 0,00
1.0.6.20	Jarraipen sistematikoa egiten zaio dirulaguntza eta hitzarmenetako hizkuntza-klausulen betetze-mailari.	% 0,00
2	**ERABILERA (KEMEN)**	**% 58,50**
2.1	**ZERBITZU-HIZKUNTZA (KEMEN)**	**% 79,16**
2.1.1	**IRUDIA (KEMEN)**	**% 98,68**
2.1.1.21	Erakundearen errotuluak (finkoak zein behin-behinekoak), eta ikus-entzunezkoak euskaraz daude.	% 97,00
2.1.1.22	Erakundearen argitalpen, iragarki eta publizitatea euskaraz daude.	% 98,80
2.1.1.23	Erakundeak euskara erabiltzen du agerraldi instituzionaletan.	% 100,00
2.1.1.24	Erakundeak euskaraz dauzka webgunea eta sare sozialak.	% 98,40
2.1.2	**HERRITARREKIKO HARREMANAK (KEMEN)**	**% 74,29**
2.1.2.25	Langileek euskaraz jarduteko eskaintza aktiboa egiten diete herritarrei, ahoz; herritarrek hizkuntza aukeratu baino lehen.	% 54,30
2.1.2.26	Eskatzen duten herritarrei euskaraz ematen zaie zerbitzua, ahoz.	% 80,30
2.1.2.27	Herritarrentzako ekitaldiak eta ikastaroak euskaraz eskaintzen dira.	% 59,00
2.1.2.28	Herritarrei euskaraz edota ele bietan bidaltzen zaizkie dokumentuak.	% 97,00
2.1.2.29	Herritarrek euskaraz aurkeztutako dokumentuei edota euskararen aldeko hautua egin duten herritarrei euskaraz erantzuten zaie, idatziz.	% 85,00
2.1.2.30	Herritarrak euskaraz zuzentzen zaizkio erakundeari, ahoz.	% 46,80
2.1.2.31	Herritarrak euskaraz zuzentzen zaizkio erakundeari, idatziz.	% 20,00
2.2	**LAN-HIZKUNTZA** (KEMEN)	**% 49,65**
2.2.1	**BARNE-HARREMANAK (KEMEN)**	**% 54,80**
2.2.1.32	Lan-bilerak euskaraz egiten dira.	% 32,50
2.2.1.33	Lankideen arteko ahozko lan-harremana euskaraz izaten da.	% 35,20

2.2.1.34	Lankideen arteko ahozko harreman ez-formala euskaraz izaten da.	% 34,20
2.2.1.35	Erakunde barruko idatzizko lan-komunikazioak euskaraz egiten dira.	% 76,60
2.2.1.36	Erakundeak euskaraz gutxienez lantzen ditu ofizioz abiatutako prozedura administratiboen barne izapideak, betiere hartzailea ezaguna ez den kasuetan.	% 40,00
2.2.1.37	Xedapen orokorrak euskaraz gutxienez lantzen dira izapidetze-prozesu osoan zehar.	% 100,00
2.2.1.38	Lanari lotutako hizkuntza-paisaia euskaraz dago.	% 63,60
2.2.2	**KANPO-HARREMANAK (KEMEN)**	**% 70,22**
2.2.2.39	Sektore publikoko erakundeekin euskaraz egiten da ahozko harremana.	% 46,50
2.2.2.40	Sektore publikoko erakundeei euskaraz edota ele bietan bidaltzen zaizkie dokumentuak.	% 95,00
2.2.2.41	Enpresa pribatuekin euskaraz egiten da ahozko harremana.	% 26,80
2.2.2.42	Enpresa pribatuei euskaraz edo ele bietan bidaltzen zaizkie dokumentuak.	% 95,00
2.2.3	**PRESTAKUNTZA (KEMEN)**	**% 35,41**
2.2.3.43	Erakundeak euskaraz eskaintzen die prestakuntza orokorra langileei.	% 60,00
2.2.3.44	Langileek euskaraz jasotzen dute prestakuntza orokorra.	% 20,90
2.2.3.45	Hizkuntza-trebakuntza eskaintzen zaie langileei.	% 25,00
2.2.4	**BALIABIDE INFORMATIKOAK (KEMEN)**	**% 29,70**
2.2.4.46	Erakundeak langileen eskura jartzen ditu euskaraz lan egiteko behar dituzten baliabide informatikoak.	% 34,00
2.2.4.47	Langileek euskaraz erabiltzen dituzte euskaraz erabilgarri dituzten baliabide informatikoak.	% 25,40
2.2.5	**SORTZE-HIZKUNTZA (KEMEN)**	**% 47,00**
2.2.5.48	Langileek euskaraz sortzen dituzte dokumentuak.	% 47,00
2.3.	**KUDEAKETA OROKORRA (EHU)**	
2.3.1	Ikastegietan eta ikastegi-ataletan Euskara Batzordeak osatu dira. (ehunekoa)	%
2.3.2	Zerbitzu zentraletan Euskara Batzordeak osatu dira. (ehunekoa)	%
2.3.3	Ikerketa-zentroetan Euskara Batzordeak osatu dira. (ehunekoa)	%
2.3.4	Sailetan euskara-arduradunak aukeratu dira. (ehunekoa)	%
2.3.5	Administrazio-ataletan euskara-arduradunak aukeratu dira. (ehunekoa)	%
2.3.6	Ikerketa-zentroetan euskara-arduradunak aukeratu dira. (ehunekoa)	%
2.3.7	Euskara-arduradunek kudeatu dituzten euskararen erabilerarekin lotutako kexak. (kopurua)	-
2.3.8	Euskara-arduradunek kudeatu dituzten gaztelaniaren erabilerarekin lotutako kexak. (kopurua)	-
2.3.9	Euskara-arduradunek kudeatu dituzten hizkuntza ez-ofizialen erabilerarekin lotutako kexak. (kopurua)	-
2.3.10	Leihatila Bakarraren bidez kudeatu diren euskararen erabilerarekin lotutako kexak eta iradokizunak. (kopurua)	-
2.3.11	Leihatila Bakarraren bidez kudeatu diren gaztelaniaren erabilerarekin lotutako kexak eta iradokizunak. (kopurua)	-
2.3.12	Leihatila Bakarraren bidez kudeatu diren hizkuntza ez-ofizialen erabilerarekin lotutako kexak eta iradokizunak. (kopurua)	-
2.4	**INSTRUKZIO-HIZKUNTZA (EHU)**	
2.4.1	**IRAKASKUNTZA-IKASKUNTZA FORMALA (EHU)**	
2.4.1.1	EHUk balioan jartzen du euskarazko irakaskuntza (Bigarren Hezkuntzako ikastegietarako orientazioa), eta euskaraz matrikulatzeko kanpainak egiten ditu. (BAI/EZ)	EZ
2.4.1.2	EHUko ikastegiek balioan jartzen dute euskarazko irakaskuntza-eskaintza (azokak, ate irekiak, webgunea e.a.). (ehunekoa)	%
2.4.1.3	Graduetan euskaraz eskaintzen diren nahitaezko irakasgaiak. (Eskaintzen diren nahitaezko irakasgaiekiko kalkulua egingo da. Hizkuntza jakintza-arlo duten graduak, eta euskaraz ere eskaintzen diren gradu hirueledunak ez dira kontuan hartuko.) (ehunekoa)	% 92,5

2.4.1.4	Graduetan euskaraz eskaintzen diren hautazko irakasgaiak. (Eskaintzen diren hautazko irakasgai guztiekiko kalkulua egingo da. Hizkuntza jakintza-arlo duten graduak, eta euskaraz ere eskaintzen diren gradu hirueledunak ez dira kontuan hartuko.) (ehunekoa)	% 57,04
2.4.1.5	Gradua osorik euskaraz egiteko nahikoa eskaintza dago EPGko irakasgaiak kontuan hartuta (nahitaezkoak eta hautazkoak). (Eskaintzen diren gradu guztiekiko kalkulua egingo da. Hizkuntza jakintza-arlo duten graduak, eta euskaraz ere eskaintzen diren gradu hirueledunak ez dira kontuan hartuko.) (ehunekoa)	% 56,9
2.4.1.6	Gradua osorik euskaraz egiteko nahikoa eskaintza dago EPGko irakasgaiak hartu gabe (nahitaezkoak eta hautazkoak). (Eskaintzen diren gradu guztiekiko kalkulua egingo da. Hizkuntza jakintza-arlo duten graduak, eta euskaraz ere eskaintzen diren gradu hirueledunak ez dira kontuan hartuko.) (ehunekoa)	% 46,1
2.4.1.7	Graduetan euskara akademikoa berariaz lantzeko irakasgaiak eskaintzen dira (EPGko irakasgaiak). (Eskaintzen diren gradu guztiekiko kalkulua egingo da.) (ehunekoa)	% 90,7
2.4.1.8	Master profesionalak euskaraz eskaintzen dira. (Eskaintzen diren master profesional guztiekiko kalkulua egingo da.) (ehunekoa)	% 64,3
2.4.1.9	Masterretan euskara akademikoa berariaz lantzeko irakasgaiak eskaintzen dira. (Eskaintzen diren master guztiekiko kalkulua egingo da.) (ehunekoa)	% 0
2.4.1.10	Doktoregaiei euskara akademikoa lantzeko berariazko formazioa eskaintzen zaie. (BAI/EZ)	BAI
2.4.1.11	Ikasgeletan ikasleek euskara ahoz eta idatziz erabiltzea sustatzen da. (ehunekoa)	%
2.4.1.12	Sailetan euskara instrukzio-hizkuntza duten irakasgaien oinarrizko ikasmaterialak euskaraz dituzte. (ehunekoa)	%
2.4.1.13	Sailek euskarazko ikasmaterialen hizkuntza-kalitatea zaintzen dute. (ehunekoa)	%
2.4.1.14	Eleaniztasuna ikusmiran, graduetan eskaintzen diren ELI, EFC+ eta CSF+ irakasgaiak. (KOPURUA)	89
2.4.1.15	Eleaniztasuna ikusmiran, masterretan eskaintzen diren ELI, EFC+ eta CSF+ irakasgaiak. (KOPURUA)	6
2.4.1.16	GrALak euskaraz egiten dira. (Ehunekoa ikasturte bakoitzean egiten diren guztiekiko)	%
2.4.1.17	MALak euskaraz egiten dira. (Ehunekoa ikasturte bakoitzean egiten diren guztiekiko)	%
2.4.1.18	Doktorego-tesiak euskaraz egiten dira. (Ehunekoa urte bakoitzean egiten diren tesi guztiekiko)	% 13,8
2.4.1.19	Nazioarteko aipamena ere lortzen duten euskarazko doktorego-tesiak. (Ehunekoa urte bakoitzean euskaraz egiten diren tesi guztiekiko)	% 50
2.4.1.20	Ikasleen formazioan parte hartzen duten TEKAZELek (liburutegiko eta laborategietako teknikariek) euskaraz irakasteko gaitasuna dute, eta euskaraz egiten dute jardun hori. (ehunekoa)	%
2.4.2	**IRIentzako ETENGABEKO PRESTAKUNTZA (EHU)**	
2.4.2.1	EHUk euskara akademikoa lantzeko formazioa eskaintzen die IRIei. (BAI/EZ)	BAI
2.4.2.2	EHUk hizkuntza-zalantzak argitzeko zerbitzua (EHULKU sarea) eskaintzen die IRIei eta doktoregaiei. (BAI/EZ)	BAI
2.4.1.3	EHUk terminologia eta fraseologia akademikoa eta espezializatua monitorizatzeko eta harmonizatzeko ekintzak egiten ditu. (BAI/EZ)	BAI
2.4.2.4	EHUk IRIen hizkuntza-prestakuntza Irakasleen Garapen Akademikorako markoarekin lerratzen eta uztartzen du. (BAI/EZ)	EZ
2.4.1.5	EHUk euskaraz eskaintzen die prestakuntza orokorra IRIei. (ehunekoa)	%
2.4.1.6	IRIek euskaraz jasotzen dute prestakuntza orokorra. (ehunekoa)	%
2.4.3	**HIZKUNTZA-HARRERA (EHU)**	
2.4.3.1	Kanpotik datozen ikasle, doktoregai eta ikertzaileei euskararen garrantziaren eta baliagarritasunaren berri emateko kanpainak egiten dira. (BAI/EZ)	EZ
2.4.3.2	Kanpotik datozen ikasle, doktoregai eta ikertzaileei euskara eroso ikasteko aukerak eskaintzen zaizkie. (BAI/EZ)	BAI
2.4.3.3	EAE kanpotik datozen ikasleen artean euskara ikasten dutenak. (ehunekoa)	%
2.4.3.4	EAE kanpotik datozen doktoregaien artean euskara ikasten dutenak. (ehunekoa)	%

2.4.3.5	EAE kanpotik datozen ikertzaileen artean euskara ikasten dutenak. (ehunekoa)	%
2.4.3.6	Euskara ikasten ari direnei edota euskararen erabileran trebatu nahi dutenei beldurrik gabe eta eroso praktikatzeko aukerak eskaintzen zaizkie: berbalagun taldeak, mintzodromoak, mintegi bereziak e.a. (BAI/EZ)	EZ
2.4.3.7	EHUk IRIei eta TEKAZELei hizkuntza-eskakizuna lanpostuan egiaztatzeko aukerak eskaintzen dizkie: EIGA eta IVAPen probak. (BAI/EZ)	EZ
2.5	**JAKINTZA GARATZEKO ETA ZABALKUNDEA EGITEKO HIZKUNTZA (EHU)**	
2.5.1	**EUSKARAREN PRESTIGIOA JAKINTZAREN GARAPENEAN (EHU)**	
2.5.1.1	Ikerketa-taldeen barruko ahozko komunikazioa nagusiki euskaraz egiten da.	% 32,8
2.5.1.2	Ikerketa-taldeen barruko idatzizko komunikazioa nagusiki euskaraz egiten da.	% 25,8
2.5.1.3	EHUk aitortu egiten ditu euskaraz egindako argitalpenak, hitzaldiak eta dibulgaziorako jarduerak (JARDUN, Docentiaz, lan-poltsak, lehiaketak...). (BAI/EZ)	BAI
2.5.2	**EUSKARAREN PRESENTZIA KOMUNIKAZIO-ALOR ELEANIZTUNETAN (EHU)**	
2.5.2.1	EHUn euskara ez den hizkuntzetan argitaratzen diren aldizkarietan euskarazko laburpena ere txertatzen da. (ehunekoa)	% 100
2.5.2.2	EHUk nazioarteko kongresu eta jardunaldietan, beste hizkuntzez gain, euskara ere erabiltzea sustatzen du, eta diru-laguntzak ematen ditu itzulpen-interpretaziorako (BAI/EZ)	BAI